

2030 ERAKO LANDA GARAPENAREN ESTRATEGIA

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

ELIKADURA, LANDA GARAPEN,
NEKAZARITZA ETA
ARRANTZA SAILA

DEPARTAMENTO DE ALIMENTACIÓN,
DESARROLLO RURAL,
AGRICULTURA Y PESCA

2030ERA KO LANDA GARAPENAREN ESTRATEGIA

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

ELIKADURA, LANDA GARAPEN,
NEKAZARITZA ETA
ARRANTZA SAILA

DEPARTAMENTO DE ALIMENTACIÓN,
DESARROLLO RURAL,
AGRICULTURA Y PESCA

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2025

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Nagusiaren katalogoan aurki daiteke :
<https://katalogoak.euskadi.eus/katalogobateratua>

Argitaraldia 1.a, 2025eko uztaila

Ale-kopurua: 80 ale

© Euskal Autonomía Erkidegoko Administrazioa

Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Saila

Internet: www.euskadi.eus

Argitaratzailea:

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Donostia-San Sebastián, 1 – 01010 Vitoria-Gasteiz

Inprimatzea:

Eusko Jaurlaritzaren Inprenta era Erreprografia Zerbitzua

ISBN: 978-84-457-3843-3

Lege-Gordailua: LG G 428-2025

EDUKIEN TAULA

I. BLOKEA: TESTUINGURUA ETA POSIZIONAMENDU ESTRATEGIKOA

1. DOKUMENTUAREN XEDEA
2. EUSKADIKO LANDA GARAPENERAKO TRESNAK
 - 2.1. LANDA-INGURUNEAREN GARAPENARI BURUZKO 7/2022 LEGEA
 - 2.2. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO LANDA EREMUAREN KARAKTERIZAZIOA
 - 2.3. LURRALDE GARAPENENKO PROGRAMA (LuGP)
 - 2.4. LANDA GARAPENERAKO ESKUALDEKO PROGRAMAK (LGEP)
 - 2.5. ITSASLURRA
3. JARDUERA EKONOMIKOA SUSTATZEKO MARKO ESTRATEGIKOAK
 - 3.1. EUSKADIKO EKINTZAILTZAREN ERAKUNDEARTEKO PLANA (EEP)
 - 3.2. EUSKADIKO EKONOMIA ETA ENPLEGUA SUSPERTZEKO BERPIZTU PROGRAMA (LEHENTASUNEZKO JARDUKETA EREMUA)
4. LANDA EREMUARENTZAKO GARRANTZITSUAK DIREN BESTE ESPARRU SEKTORIAL ESTRATEGIKO BATZUK
 - 4.1. LURRALDEAREN ANTOLAMENDURAKO TRESNAK (LAG, LPP, NEKAZARITZA ETA BASOGINTZAREN LPS)
 - 4.2. ETXEBIZITZA
 - 4.3. ARRETA SOZIOSANITARIOA
 - 4.4. MUGIKORTASUNA
 - 4.5. GAZTERIA
5. EUROPAR BATASUNAREN JOERAK ETA LEHENTASUNAK LANDA GARAPENEAN

II. BLOKEA: ESPARRU ESTRATEGIKOA

6. IKUSPEGIA, HELBURU ESTRATEGIKOA ETA ESKU-HARTZE ARLOAK
7. EKINTZA PLANA
 - 7.1. PLANGINTZA
 - 7.1.1 LURRALDE GARAPENENKO PROGRAMA (PLA-EA1)
 - 7.1.2 BERMERAKO LANDA MEKANISMOA (PLA-EA2)
 - 7.1.3 LANDA GARAPENERAKO ESKUALDEKO PROGRAMAK (PLA-EA3)
 - 7.1.4 LANDA EREMUEN IDENTIFIKAZIOA ETA SAILKAPENA 2027 OSTEAN (PLA-EA4)
 - 7.1.5 PARTAIDETZAKO TOKIKO GARAPENENKO ESTRATEGIA (PTGE) eta 2027 OSTEKO LEADER PROGRAMA (PLA-EA5)
 - 7.2. GOBERNANTZA
 - 7.2.1 NEKAZARITZAREN, ELIKAGAIEN ETA LANDA GARAPENAREN POLITIKAREN LEGEAN AIPATZEN DIREN KIDE ANITZEKO ORGANOAK (GOB-EA6)
 - 7.2.2 LANDA GARAPENENKO ELKARTEAK (GOB-EA7)
 - 7.2.3 HAZI-LURRALDE (GOB-EA8)

7.2.4 LANDA GARAPENERAKO EUSKAL SAREA (GOB-EA9)

7.3. DINAMIZAZIOA

7.3.1. BIZI KALITATEARI DAGOKIONEZ LANDA EREMUAK ERALDATZEKO PROIEKTU
ESTRATEGIKOAK SUSTATZEA ETA ZUZENTZEA (DIN-EA10)

7.3.2. LANDA EREMUETAN EKINTZAIETZA ETA JARDUERA EKONOMIKOAREN
DIBERTSIFIKAZIOA SUSTATZEA (DIN-EA11)

7.3.3 EUSKADIKO LANDA EREMUA SUSTATZEA ETA ZAINZEA (DIN-EA12)

III. BLOKEA: ESTRATEGIAREN KUDEAKETA

8. ESTRATEGIA JARRAIPEN ETA EBALUATZEKO SISTEMA

9. ESTRATEGIAREN GOBERNANTZA ETA KOORDINAZIOA

I. BLOKEA: TESTUINGURUA ETA POSIZIONAMENDU ESTRATEGIKOA

1. DOKUMENTUAREN XEDEA

Dokumentu honek **Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Sailak LANDA GARAPENAREN** arloan egindako **estrategia** jasotzen du. Estrategia honek markatuko du Gobernuaren **bide-orria**, 2025-2030 aldian **Landa-Ingurunearen Garapenari buruzko 7/2022 Legea** aplikatu dezan, eta gerora **hainbat programa** diseinatzeko, gauzatzeko eta jarraipena egiteko oinarria izango da.

Nekazaritzako eta elikadurako balio-katea landa eremuaren garapenerako ardatz garrantzitsua den arren (Landa-Ingurunearen Garapenari buruzko 7/2022 Legearen helburuetan jasotzen den moduan), estrategia honetan ez da aurreikusten hura indartzeko ekintza zuzenik. Izan ere, badaude dagoeneko arlo hori jorratzeko bereziki diseinatutako hainbat plangintza-tresna, hala nola Gastronomia eta Elikaduraren Plan Estrategikoa ([GEPE](#)), Egurraren Sektorereko Plan Estrategikoa ([ESPE](#)) eta Euskal Nekazaritza Sektorereko Belaunaldi Erreleborako Estrategia Integrala.

2. EUSKADIKO LANDA GARAPENERAKO TRESNAK

2.1. LANDA-INGURUNEAREN GARAPENERI BURUZKO 7/2022 LEGEA

Eusko Jaurlaritzak 2022ko ekainaren 30ean onartu zuen [Euskadiren Landa-ingurunearen Garapenari buruzko 7/2022 Legearen](#) arabera, **Euskadiko landa-eremuaren garapen jasangarria funtsezko faktorea da Euskadi osoko ekonomiaren, gizartearen eta lurraldearen garapenerako eta kohesiorako**, eta EBk sustatzen duen Lurralde Kohesiorako Politikarekin bat datorren garapen-kontzepzioa lortu behar da.

Legearen helburua da landa-eremuak gainerako lurraldeekin parekatzea, **berrikuntzari, modernitateari eta ekintzailetzari** dagokienez, eta, horrela, **herrialdearen ikuspegi berri bat, integratuagoa**, lortzen laguntzea. Hori guztia nekazaritza-jarduerak Euskadiko lurraldearen eta ingurumenaren kudeaketan duen rol estrategikoa alde batera utzi gabe, bai eta ekonomian eta elikagaien hornikuntzan duen rola ere.

Lurralde kohesioaren ikuspegitik, **helburu** estrategikoak eta sektorialak birdefinitu dira, plangintzarako, kudeaketarako eta finantzaketarako **tresna berriak** gehitu dira eta landa-eremuaren **gobernantza-eredua** berregituratu da.

Hala, Landa-Ingurunearen Garapenari buruzko Legearen 4. artikuluan **helburu estrategiko** hauek ezarri dira:

- a) **Euskal landa-eremua sustatzea eta babestea**, bereziki nekazaritza-jarduerak eta mendi-eremuek hartzen dutena, EAEko lurraldea egituratzen duen eta bertako paisaia adierazgarriena eratzen duen funtsezko elementu gisa.
- b) **Erakundeen arteko beharrezko koordinazioa** bermatzea EAEko landa-eremuen **jarduera ekonomikoa sustatu eta dibertsifikatzeko**, horrela herrialdearen ekonomia jasangarria garatzen eta landa-eremu horietan biztanleria eta zerbitzuak finkatzen lagun dadin, betiere landa-eremuan funtsezkoa den lehen sektoreko jarduera errespetatuz.
- c) **EAEko landa-eremuko biztanleen ongizate-maila** hiri-biztanleen ongizate-mailarekiko **parekatzea**, baita landa-eremuaren despupulatzeari eta zahartzeari buelta ematea ere, funtsezko faktorea baita Euskadiko gizartearen eta lurraldearen kohesiorako.

Helburu estrategiko hauek lortzeko, Landa-Ingurunearen Garapenari buruzko Legeak berak hainbat plangintza-tresna espezifiko aurreikusten ditu, landa-eremuko esku-hartzeak eta sustatu beharreko jarduketan gobernantza-tresnak modu operatibo eta koherentean artikulatzeko, bi kategoria aintzat hartuz: ikuspegi instituzionalaren gobernantza eta ikuspegi publiko-pribatuarena.

Plangintza-tresnei dagokienez, **Lurralde Garapeneko Programak** (LuGP) eta **Landa Garapenerako Eskualdeko Programak** (LGEP) landa-garapenerako politikaren elementu garrantzitsuak dira, landa-eremuen garapena sustatzeko jarduketak plangintza-tresna hauen gainean egituratu behar direlako.

Lurralde Garapeneko Programak landa-eremuen garapen sozioekonomikora bideratutako politika, helburu orokor, helburu sektorial eta jarduketa-ardatz guztiei egiten die erreferentzia. Testuinguru horretan integratzen da **bermerako landa-mekanismoa** (landako lentea edo rural proofing), eta bere helburua da **diseinatzen diren politiketan Euskadiko landa-eremuan izan dezaketen eragina kontuan hartzea**. Horretarako, landa-eremuei eragiten dieten planak, programak eta ekimen instituzionalak onartu aurretik, Eusko Jaurlaritzako zein Foru Aldundietako landa-garapenerako sailek **txosten lotesleak** egitea aurreikusten da.


Bestalde, **Landa Garapenerako Eskualdeko Programek** eragina dute eskualde bakoitzean ezarri beharreko jarduketan eta proiektuen lerro nagusietan eta goranzko ikuspegia («bottom-up») dute bai programak egiteko garaian, bai zabaltzeko garaian. Halaber, Lurralde Garapeneko Programaren jarraibideak jarraitzen dituzte.

Aipatutako tresna hauetako bakoitzak **gobernantza-maila** desberdina du. Hortaz, **gobernantza instituzionalaren** arloko plangintza eta koordinazioa **Lurralde Garapeneko Programaren** bitartez bideratuko da, eta **Landa Garapenerako Eskualdeko Programak** berriz, **tokiko gobernantzaren** arlotik bideratzen dira.

Horrez gain, Landa Garapeneko Euskal Sarea sortu da tokiko gobernantza publiko-pribatuaren arloan. EAEko Administrazio Orokorreko landa-garapenaren arloko sailari

atxikita dago eta landa-garapenean inplikatur dauden erakundeak eta eragileak lotzea, koordinatzea eta lankidetzan jartzea du xede.

Landa-Ingurunearen Garapenari buruzko 7/2022 Legearen plangintzarako eta gobernantzarako tresnak.




2.2. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO LANDA EREMUREN KARAKTERIZAZIOA

Landa-garapena landa-eremuaren hobekuntza eta aurrerabide jasangarria, zentzuduna eta holistikoa da, eta, garapen horren barruan, hainbat gai daude. Horrenbestez, garrantzitsuak diren lurralde-arlo eta arlo funtzional guztiak landuko dituzten neurriak eta politikak ezarri behar dira. Arlo hauek biltzen dira: nekazaritza, abeltzaintza, mendiak, baso-zerbitzuak, laguntza soziala, kultura, ondarea, garapen ekonomikoa, industria, lurraldearen antolamendua, turismoa, kirola, garapen komunitarioa eta talde espezifikoentzako arreta (adibidez, emakumeak, haurrak, gazteak eta hirugarren adineko pertsonak).

2023an onartutako karakterizazio-lanak Landa-Ingurunearen Garapenari buruzko 7/2022 legearen **7. artikuluan** jasotakoari erantzuten dio eta lurraldean existitzen diren errealitateei ondoen erantzuten dieten parametroak identifikatzen ditu Lurralde Historiko guztientzat, ikuspegi trinko eta oso batetik. EAEko **landa-garapeneko politiken plangintza egin eta**

politika horiek gauzatzeko abiapuntu izatea nahi da. Erabakiak hartu eta baliabideak esleitzeko oinarri sendo eta eguneratu bat eskaini nahi da, azken batean.

1. mapa: landa-eremuen oinarrizko mapa



1. taula: Landa-eremuak entitate-mailan identifikatzearen emaitzak.

Eremu-mota	Eremu-kopurua		2021eko biztanleria		Azalera
Landa-entitatea + Hiri-entitateko landa-eremua	1.355	% 92,4	271.277	% 12,4	% 96,0
Hirigunea	111	% 7,6	1.921.970	% 87,6	% 4,0

Aurreko aldietan ez bezala, [karakterizazio](#) honen emaitza ez da erreferentzia-mapa bakarra izan. Aitzitik, emaitzak **hainbat maparen** bidez ikusten dira, eta landa-eremuen egoera erakusten dute, helburuen eta azterketa-arloen arabera:

- Landa-eremuan inpaktua duten politika gehienek gutxienezko lurralde-oinarria udalerrira denez, azterketa udalerrira mailan egin da eta **udalerrien landa-eremuen arabera sailkapena** definitu da.


- Karakterizaziorik ahalik eta xeheena lortze aldera, **Garapen-eremuen arabera** **landa-eremuen karakterizazioa** egin da eta biztanleriaren entitate berezia izan da, oro har, neurtzeko lurralde-oinarria.

Landa-eremuen karakterizazioa egiteko ezarritako garapen arloak **“jarduera ekonomikoa sustatzea eta dibertsifikatzea”** eta **“bizi-kalitatea eta ongizatea”** izan dira.

Arloetan oinarritutako kategorizazioa aztertzeko, lehen bezala landa-mailei buruz hitz egin beharrean, **“zaugarritasun-mailak”** zehaztu dira; hala, eremu bakoitzaren zaugarritasuna agerian jartzen da, arlo zehatzekin lotuta.

Askotariko sailkapen horren bitartez, landa-eremu bakoitzaren egoera modu zehatzagoa eta Landa-Ingurunearen Garapenari buruzko Legea bera ezartzearen ondoriozko lorpenen etengabeko ebaluazioa egin daiteke. Beraz, administrazio arduradunek mugarriak, bitarteko ebaluazioak eta abar finkatu ditzakete, lurraldean egiten diren politikak eta neurriak baloratu eta, hala badagokio, birbideratzeko.

2. mapa: udalerri mailako sailkapena



Udalerrien sailkapenari dagokionez, **Arreta Bereziko Eremu (ABE)** gisa sailkatutako 61 udalerriak EAEko udalerri guztien % **24,3** dira eta horietako asko Araban daude.

Eta **entitate guztiak landa-izaerakoak diren 99 udalerrietan (guztien % 39,4)**, EAEko biztanleriaren % 5,6 dago. Gehienbat, Bizkaiko kostaldean, erdialdean eta hegoaldean daude, Arabako iparraldean eta Gipuzkoako erdialdeko eta hegoaldeko eremu isolatueta.

Azkenik, **landa-habitat sakabanatua duten udalerriek** Gipuzkoako zati handi bat eta Bizkaiko zati bat hartzen dituzte, eta Euskadiko udalerri guztien % **36,3** dira. 91 udalerri dira, hirigunearekin inbrikazio-maila handiagoa dutenak.

Ikus daitekeen moduan, biztanleria landa-osagarri txikiagoa duten udalerrietan kontzentratzen da batik bat, eta Arreta Bereziko Eremuek (ABE) lurraldean % 29 hartzen duten arren, biztanleriaren % 1,4 soilik bizi da han.

2. taula. EAEko udalerrien sailkapeneko emaitza nagusiak EAEko landa-eremuen arabera.

Eremu-mota	Udalerri-kopurua		2021eko biztanleria		Azalera
Arreta Bereziko Eremuak	61	% 24,3	30.134	% 1,4	% 29,0
Entitate guztiak landa-izaerakoak dituzten udalerriek	99	% 39,4	123.903	% 5,6	% 33,9
Landa-habitat sakabanatua duten udalerriek	91	% 36,3	2.039.210	% 93,0	% 37,1

Lurralde Garapeneko Programaren (LuGP) kasuan, udalerria da analisiaren oinarri nagusia; hortaz, **Udalerrien landa-eremuen arabeko sailkapena** hartu da kontuan.

Landa Garapenerako Eskualdeko Programak (LGEP) garatzeko, **dirulaguntzen** planak aplikatzeko eta **politika espezifikoak** zehazteko, diseinatzeko unean **ikusten den desagregazio-maila** hartuko da kontuan, eta udalerriaren edo entitatearen maila zein biak har daitezke kontuan.


2.3. LURRALDE GARAPENEN PROGRAMA (LuGP)

Lurralde Garapenerako Programak izan beharko du **ekintza politiko** instituzionalaren eta multisektorialaren **bide-orria**, landa-eremuaren lurralde garapenerako eta Landa Garapenerako Eskualdeko Programak (LGEP) egiteko eta lerrokatze gida eratzeko, bai eta, hala badagokio, tokiko garapen-estrategiak ere. Halaber, bere jarduketaren eremu geografikoan indarrean dauden lurralde antolamendurako tresnak errespetatu beharko ditu.

Administrazioek arlo horretan egiten dituzten ekintzak aztertzeke eta planifikatzeko tresna denez, Landa-Ingurunearen Garapenari buruzko 7/2022 Legearen **hiru helburu estrategikoen gainean** dago eraikia bere ikuspegia eta ezarritako helburuak lortzeko **garapen-arloak identifikatu** eta bakoitzarentzako **Bermerako Landa Mekanismoa** aplikatzeko gomendioak integratzen ditu.

“Erakundeen arteko beharrezko koordinazioa bermatzea EAEko landa-eremuen jarduera ekonomikoa sustatu eta dibertsifikatzeko, herrialdearen ekonomia jasangarria gara dadin laguntza emateko eta landa-eremu horietan biztanleria eta zerbitzuak ezarri daitezen, betiere landa-ingurunean funtsezkoa den lehen sektoreko jarduera errespetatuz” helburua **Jarduera Ekonomikoa Sustatu eta Dibertsifikatzeko** arloarekin lotzen da . “EAEko landa-biztanleen ongizate-maila hiri-biztanleen ongizate-mailarekiko parekatzea, bai eta landa-ingurunearen despopulatzeari eta zahartzeari buelta ematea ere, funtsezko faktorea baita Euskadiko gizartearen eta lurraldearen kohesiorako.” Helburu Estrategikoa **landako biztanleriaren Bizitza Kalitatea eta Ongizatea** arloarekin lotzen da.

Eta, bestalde, **Euskadiko Nekazaritzako eta Basogintzako Lurralde Plan Sektoriala** berrikusteko eta berritzeko aurreikusitako lanekin, EAEko **Azpiegitura Berdeak** kudeatzeko jarraibideekin eta Lurralde Antolamendurako Gidalerro (LAG) berriak egokitzearekin, erantzun egokia emango litzaieke helburu estrategiko honekin lotutako eskakizunei: “EAEko landa-espazioa sustatzea eta babestea, bereziki nekazaritza-jarduerak okupatutakoa eta mendi-eremuak, EAEko lurraldea egituratzen duen eta lurraldearen paisaia bereizgarriena osatzen duen funtsezko elementu gisa”.



LuGPK, gaiei dagokienez, duen irismen handia kontuan hartuz (oraindik tramitatzen ari da), lehentasunezko arloak identifikatu dira lehenik eta behin. Horien artean nabarmendu beharrekoak dira ekintzailatza eta jarduera ekonomikoa, etxebizitza, arreta soziosanitarioa, mugikortasuna eta gazteria. Arrazoi hori dela eta, gai horien gaineko plangintza eta ekintza arautzen duten marko estrategikoen erreferentziak gehitu dira estrategia honetan, testuinguruaren barruan.

2.4. LANDA GARAPENERAKO ESKUALDEKO PROGRAMAK (LGEP)

Landa Garapenerako Eskualdeko Programek (**LGEP**) jasotzen dituzte, eskualdeko jardueraren eremu bakoitzerako eta **metodologia komun** baten pean, **lurralde garapenerako programetatik eratorritako** helburu sektorial espezifikoak eta ezarri beharreko jarduerak, lehentasun-maila adierazita. Horrez gain, **gobernantzaren** gaineko inplikazioak aurreikusten dituzte eta programa bakoitza ebaluatzeko jarraipenaren eta inpaktuaren **adierazleak** gehitzen dituzte. Landa Garapenerako Eskualdeko Programetan aurreikusitako jarduketak-lerroetatik eratorritako gauzatu beharreko **ekintzak** eta horien lehentasuna maila **Urteko Kudeaketa Planetan** zehaztuko dira.

Landa Garapenerako Eskualdeko Programak aplikatzeko **denbora-tartea** Lurralde Garapenerako Programaren berdina izango da, baina aplikatu eta hiru urtera, programa bakoitzaren **tarteko ebaluazioa** egingo du Euskadiko Administrazioaren erakunde independente batek.

Nekazaritza, Elikadura eta Landa Garapen Politikako Batzordeak eskatuta egingo dira Landa Garapenerako Eskualdeko Programak, Foru-Aldundien babesia izanda. **Landa Garapenerako Elkarteeak (LGE) egiten** dituzte, Hazi Fundazioaren Lurralde kudeaketa-zerbitzuaren laguntzarekin. LGEP bakoitzaren hedapena eta jarraipena ere dagokion LGEak zuzenduko du.

2.5. ITSASLURRA

Elikagaien eta egurraren balio-katea osatzen duten sektoreen **hazkunde ekonomikoa** eta landa-lurraldeetan bizi diren **pertsonen ongizatea** dira legegintzaldi honetako Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Sail berriaren estrategia orokorra garatzeko bi ardatzak.



Hori horrela, **erronka estrategiko** hauen gainean ardazten dira plangintza eta ekintza:

- ⇒ Lehen sektorearen errentagarritasuna eta lehiakortasuna hobetzea.
- ⇒ Belaunaldi arteko erreleboa eta ekintzailea sustatzea lehen sektorean
- ⇒ Jasangarritasuna eta berrikuntza sustatzea
- ⇒ Landa-eremuan bizi diren pertsonen bizi-kalitatea eta ahalduntzea hobetzea.
- ⇒ Lurralde garapena, aukera-berdintasunak sustatuz

Landa-garapenaren arloan, **zerbitzuen** eta **lurralde-ekonomia berrien** gainekoak dira konpromisoak. Hurrengo koadroan daude deskribatuta aurreikusitako lan-ildo nagusiak, ekimen adierazgarriak eta kontuan izan beharreko araudiaren testuingurua.



3. JARDUERA EKONOMIKOA SUSTATZEKO MARKO ESTRATEGIKOAK

3.1. EUSKADIKO ERAKUNDEARTEKO EKINTZAILERAKO PLANA (EEP)

[2024ko Euskadiko Erakundearteko Ekintzailerak Planak \(EEP 2024\)](#) “Gure ekonomia eraldatzuz – EAEko ekintzaileraren ibilbide-orria” EAEko eragile publiko nagusiek ekintzailerari laguntzeko duten konpromiso partekatua jasotzen du, Euskadiko suspertze ekonomikoari eta sozialari laguntzeko, eta zintzilik dauden lehentasuneko trantsizioei heltzeko. Egun, 2028rako EEP berria lantzen ari dira.

Erakundeen arteko, sailen arteko eta arlo publiko-pribatuaren arteko lankidetzaren bitartez egin ahal izan da, ikuspegi integralarekin.

Ekintzailatzaren arlo guztiak bultzatzea da helburu nagusia, proiektu, enpresa eta enplegu lehiakor eta jasangarriak jaio eta hazi daitezen lortzeko, Euskadiren ekonomia, hazkunde inklusiboa eta garapen jasangarria suspertzeko etapa berri baten motor gisa. Eta, hala, Europako, Estatuko eta Euskadiko esparruan ezarritako helburuei laguntzea, bereziki, herrialde mailan finkatutako bi helbururi: langabezia % 10etik behera jaistea, eta industriaren eta zerbitzu aurreratuen BPGa % 40koa baino altuagoa izatea.

2030erako 11 erronka planteatu dira Euskadiko ekintzailatza-ekosistemaren arloan. 100 eragile publiko eta pribatu baino gehiagok osatzen dute ekosistema hori, tartean, erakunde publikoek, ekintzailatza-sareek, laguntza-zerbitzuek, hezkuntza- eta trebakuntza-zerbitzuek, etab. Halaber, Euskadiko ekosistemarentzako lehentasunezko 35 erronkako zerrenda bat identifikatu da, erresilientzia handitzeko, laguntza-prozesuak eta -dinamikak eraginkortasun handiagoarekin artikulatzeko, eta ekintzailatzaren potentziala ahalik eta gehien aprobetxatzeko, datozen urteetarako suspertze-palanka gisa.

2024ko EEPk landa-eremuarekin lotutako ekintza espezifiko batzuk aurkezten ditu, Ardatz bakoitzeko jarduketa adierazgarrien barruan:

- “Giza kapitala” ardatzaren barruan daude:
 - **Kontratazioa:** Lehenengo sektorean, elikagaien industrian eta landa eremuan ekintzaileak txertatzea.
 - **Nekazaritzako elikagaien sektoreko ekintzailatzaren gaineko prestakuntza trinkoko programak:** Sektorearen beharretara egokitutako prestakuntza-programak garatu dira, konpetentzia digitalak, enpresen kudeaketa eta teknika jasangarriak barne.
 - **Belaunaldien arteko erreleboa sustatzea:** Gazteak landa-eremura erakartzeko eta ustiategien eta negozioen transmisioa sustatzeko neurriak ezarri dira.
- Landa-eremua biziberritzeko ekintza espezifikoak, hala nola:
 - **Dibertsifikazio ekonomikoa sustatzea:** Landa-eremuetan jarduera ekonomiko berriak sortzea sustatzen da, nekazaritza eta abeltzaintza tradizionaletik harago, hala nola ekonomia sozialaren arloan, nekazaritzako elikagaietan, industria kultural eta sortzaileetan, etab.
 - **Azpiegiturak eta zerbitzuak hobetzea:** Landa-eremuetan oinarritzko azpiegiturak eta zerbitzuak hobetzea aurreikusten da, bizitzeko eta ekiteko erakargarriagoak izan daitezen.

3.2. EUSKADIKO EKONOMIA ETA ENPLEGUA SUSPERTZEKO BERPIZTU PROGRAMA

COVID 19aren osasun-pandemiak eragindako krisi ekonomikoari eta enplegu-krisiari erantzuteko euskal erakundeek emandako erantzuna da [Berpiztu Programa](#). 13.250 milioi eurotako inbertsio publikoa aurreikusten da eta 130.000 enplegu sortzea eta 2024rako langabezia-tasa % 10en azpitik jaitea du helburu.

BERPIZTU bat dator Europako **EB Next Generation funtsekin** eta **Garapen Jasangarrirako Helburuekin (GJH)**, eta hiru trantsizio gako barne hartzen ditu: **digitala, energetikoa- klimatikoa eta soziala-sanitarioa**. Horrez gain, hainbat mailatako eta erakunde arteko gobernantza sustatzen du, aldundiekin, udalekin eta eragile ekonomiko eta sozialekin.

Programak bi ardatz bertikal ditu: lehen ardatza **Berraktibazio Ekonomikoarena** da eta bigarrena **Enpleguaren Dinamizazioarena**. Horrez gain, zeharkako hirugarren ardatz bat dago **enpleguaren kalitatea eta genero-berdintasuna hobetzearekin** lotuta.

BERPIZTU programaren barruan garrantzi handia dute landa-eremuak eta elikagaien industriak, Euskadiren garapen jasangarriarentzako funtsezko aktiboak baitira. Bat dator hori esku-hartze publiko osoa orientatzeko jasangarritasunaren, parekidetasunaren eta lurralde kohesioaren printzipioekin.

I. ardatza: Berraktibazio Ekonomikoa izenekoan, jarduketa garrantzitsuak aurreikusten dira elikagaien industriaren arloan; tokiko ekoizpen-gaitasunak indartzeko, nekazaritzaren eta industriaren eraldaketa sustatzeko jatorrian eta nekazaritzako elikagaien produktuak nazioartekotzen laguntzeko. Hori guztia elikagaien gertutasunaren eta segurtasunaren ikuspegitik. Horrez gain, ardatz horrek trantsizio energetiko-klimatikoa gehitzen du landa-eremuaren eraldaketarako bektore gisa, “Baserritik mahaira” (*Farm to Fork*) Europako estrategiarekin bat etorritz.

II. ardatza: Enplegua Sortzea izenekoan, landa-eremuan espezifikotasuna eta enplegu jasangarria sortzeko potentziala aurreikusten da, eta landa-eremuko ekintzailetzari laguntzeko ildoak sustatzen dira, bereziki nekazaritzako industriarekin, turismo jasangarriarekin eta ekonomia sozialarekin lotutako ekimenei dagokienez.

Oro har, BERPIZTU Programa Euskadiren eraldaketa ekonomiko eta soziala sustatzeko tresna estrategikoa da, eta landa-eremua eta egoera zaugarrian dauden eskualdeak garapenerako potentzial handia duten espazioak direla aitortzen du. Halaber, jarduketa integratuak sustatzen ditu eremu horietan, lurralde-kohesiorako, ingurumenaren jasangarritasunerako eta jarduera ekonomikoaren dibertsifikaziorako.

Estrategia horren barruan, Lehenetsunezko Jarduera Zonaldeak (LJZ) definitu dira eta lehenetsunezko esku-hartzeak egingo dira han. LJZen helburu nagusia da arrisku sozioekonomikoaren faktore asko kontzentratzen dituzten arloetan ekonomia eta enplegua

dinamizatzea, hala nola egiturazko langabezian, biztanleriaren galeran edo desindustrializazioan. Hasiera batean, lehentasunezko lau eskualde identifikatu ziren: **Ezkerraldea-Meatzaldea, Enkarterri, Oarsoaldea eta Aiaraldea**, eta, gerora, Debarrena ere gehitu zen. Hala, estrategiaren irismena birgaitzeko beharra duten beste eremu batzuetara zabaldu da. Eskualde horietako bakoitzak bere **trakzio-proiektu** propioak definitu ditu, bere ezaugarrien eta behar espezifikoaren arabera diseinatu.

BERPIZTU programaren eta LJZren arteko artikulazioak gobernantza-eredu partekatua indartzen du eta lurralde-parekidetasuna jartzen du erdigunean. Hala, baliabide espezifikoak ematen dizkie beharrik handiena duten eskualdeei, Euskadiren suspertze- eta eraldaketa-prozesuan atzean gera ez daitezen.

4. LANDA EREMUARENTZAKO GARRANTZITSUAK DIREN BESTE ESPARRU SEKTORIAL ESTRATEGIKO BATZUK

4.1. LURRALDEAREN ANTOLAMENDURAKO TRESNAK (LAG, LPP, NEKAZARITZA ETA BASOGINTZAREN LPS)

Landa-Ingurunearen Garapenerako 7/2022 Legearen helburu nagusietako batek berariaz aipatzen du lurralde-antolamendua: **“Euskal landagunearen lurralde-antolamendua behar bezala egitea, ikuspegi integrala, sistemikoa eta sektore anitzekoa edukiko duen lurralde-garapeneko eredua jasangarri orekatu baten arabera, ingurunea despopulatzea eta uztea saihestuz, indarrean dauden lurraldearen antolamenduko tresnekin bat”**. Halaber, arlo horrekin lotutako beste bi helburu sektorial ere definitu dira:

- **“Bidea ematea** Lurralde Antolamenduko Gidalerroak (**LAG**), Lurralde-plan partzialak (**LPP**), Lurralde-plan sektorialak (**LPS**) eta Hiri antolamenduko plan orokorrak (**HAP**) **onartzeko edo berrikusteko prozesuak** landagunea zaintzeko lagungarriak izan daitezen, eta 9. artikuluan aurreikusten diren Lurralde-Garapeneko Programetan (LuGP) jasotako beharrian eta estrategiak kontuan har daitezen horiek idaztean”.
- **“Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordearen barruan adieraztea eta adostea** landagunea kontserbatzeari dagokionez antolamendurako edozein tresnatan kontuan hartu beharko diren irizpideak.”

Bestalde, [LAGak](#) berrikustean, “Landa-habitat” lurraldearen antolamendurako arloetako bat izan beharko da, hiri-habitataren, ingurune fisikoaren eta Azpiegitura

Berdearen, Mugikortasunaren eta Logistikaren, Paisaiaren, Natur Ondarearen eta Baliabide turistikoen eta Baliabideen kudeaketaren moduan. Horri dagokionez, plan horiek landa-habitatarentzako jarraibide eta helburu batzuk definitzen dituzte:

- **Nekazaritzako lurzorua ingurune fisikoa kudeatzeko tresna gisa babestea**, bereziki Balio Estrategiko Handikoa, landa-espazioa babesteko eta sustatzeko.
- **Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza** elikagaiak hornitzeko jarduera gisa eta lurraldearen elikadura-burujabetzaren oinarrizko elementu gisa sustatzea, herritarrei bizi-kalitate egokia eta osasungarria eskaintzeko.
- **Landa-eremuak hiri-eremuaren bizi-maila bera izan dezan bermatzea**, batez ere, ekipamenduen eta zerbitzu publikoen eskuragarritasunari dagokionez.

Horrez gain, jarraibideek **gobernantza partekatua** izateko beharra planteatzen dute. Alderdi hori 7/2022 Legeak aurreikusitako gobernantza-ereduarekin lotuta dago eta, hala, landa-eremuko berrikuntza sozialerako ereduak sor daitezke, bertako herritarrek proiektu publikoen edo komunitarioen diseinuan eta kudeaketan parte har dezaten.

Une honetan, **Lurralde Plan Partzial (LPP)** batzuk berrikusten ari dira LAG berrien arabera, eta, halaber, hainbat Lurralde Plan Sektorial (LPS) berrikustea aurreikusten dute. Nolanahi ere, plangintza-prozesu horiek aukera ematen dute **lurralde garapenaren arloko helburuak eta jarraibideak uztartzeko landa-ikuspegitik**.

Oro har, agertoki horrek **aukera** argiak eskaintzen ditu Euskadiko landa-espazioa garatzeko: lehen sektorea sustatzeko, ekipamenduak eta zerbitzuak planifikatzeko, ekonomiaren dibertsifikazioa eta jasangarritasuna sustatzeko eta ondare naturalari eta kulturalari garrantzia emateko. **Dimentsio honek erreferentzia-esparru argia planteatzen duen arren Euskadiko landa-espazioa lurraldearen arkitekturarentzako eragile estrategikoa** izan dadin, hainbat alderdi **arriskutsuak** izan daitezke landa-eremu hori garatzeko helburua lortzeko, besteak beste, jarraibideen izaera ez loteslea, nekazaritzakoak ez diren erabileren presioa, landa-garapenerako araudien murrizketak eta urbanizazio lausoa.

4.2. ETXEBIZITZA

Etxebizitza egokiak eta eskuragarriak izatea ezinbestekoa da **herritarrak** landa-eremuetara **erakartzeko eta han atxikitzeko**. **Estrategia garrantzitsua** da landa-eremuetan arrazoizko prezioa duten etxebizitzak sustatzea, eremu horren garapen jasangarrirako eta komunitateak indartzeko.

Euskadiko landa-eremuan **zailtasunak** daude etxebizitza bat eskuratzeko eta biztanleria berria finkatzeko, eta arazo horrek Arabari eragiten dio bereziki. Hauek dira egoera horretan eragina duten kausak:

- Alokairuko etxebizitzaren eskaintza txikia da eta batzuetan ez dago eskaintzarik.
- Jabetzako etxebizitza berrien sustapenen bolumena eskasa da.
- Etxebizitza-parkea zahartua dago.

[Etxebizitza Legea eta Etxebizitzaren aldeko Itun Soziala 2022-2036](#) dira erreferentziazko esparruak eta horietako bat berak ere ez ditu berariaz aipatzen edo definitzen landa-eremuetan eta -nukleoetan behar diren etxebizitza-politikak, lurralde-oreka handiagoa lortu ahal izateko eta ingurune horietan biztanleria finkatzea lortu ahal izateko. [Etxebizitzaren Gida Planak](#) **landa-eremuko udalerrientzako jarduketa espezifikokoak definitzen ditu**, jenderik bizi ez den nukleoetan alokairu babestua sustatzeko eta biztanleriari eustea bermatzeko. Hala ere, jarduketa horiek **ez dira ia bereizten** hiri-udalerrietan edo landa-udalerrietan egin beharreko birgaitze-jarduketetatik. Landa-ingurunearen gaineko ikuspegi hori intentsifikatu egin beharko litzateke **2025-2027 Gida Plan berrian**.

Aipatu dugun moduan, jabetzako etxebizitzaren sustapena oso txikia da landa-eremuan, sustatzaileentzako ez delako errentagarria. Eskaintzaren defizit hori are larriagoa da kontuan hartzen badugu Etxebizitza Legeak babestutako alokairuko etxebizitza berriak soilik garatzea baimentzen duela, eta landa-eremuan jabetzako etxebizitza babestuen sustapen berriak egiteko aukera kendu duela.

Etxebizitzaren aldeko Itun Sozialak 2022-2036 zein Etxebizitzaren Gida Planak 2021-2023 jarduketa eta organo batzuk definitzen dituzte erakundeen zein herritarren parte-hartzea sustatzeko. **Etxebizitzaren arloan lan egiten duten instituzio eta erakunde publikoen arteko koordinazioa handitzea aukera** bat izan daiteke bermerako landa-mekanismoa (landako lentea) Euskadiko etxebizitza-politiketan, definitzen diren planetan eta estrategietan, dagokien dirulaguntza-aginduetan eta gobernantza-ereduetan integratzeko.

4.3. ARRETA SOZIOSANITARIOA

Landa-eremuan zerbitzu soziosanitario egokiak eta irisgarriak defendatzea funtsezkoa da eremu horietan bizi diren **pertsonen bizi-kalitatea eta parekidetasuna bermatzeko**. Zerbitzu soziosanitarioetarako irisgarritasuna izatea ezinbestekoa da autonomia eta garapen pertsonalarentzat, batez ere, adinekoentzat eta kolektiborik zaurgarrienentzat. Oro har, landa-eremuetan eta hiri-eremuetan zerbitzu soziosanitarioen banaketa ez da berdina izaten. Horrek arrakala sortzen du bizi-kalitatean eta garapen-aukeretan.

Landa-eremuetako arreta soziosanitariorako **zentroek** arreta eskaintzeaz gain, **sozialki elkartzeko** puntuak ere badira, eta horrek bakardadearen aurka egiten eta komunitate kohesionatuari eusten laguntzen du. Kalitatezko zerbitzu soziosanitarioak izatea **lagungarria** izan daiteke jendea landa-eremuetan geratzeko, eta, hala, herriak hustea ekiditeaz gain, biztanleriaren banaketa orekatua mantentzen da.

Hortaz, zerbitzu soziosanitario egokiak izateak eta/edo eskuratu ahal izateak **komunitateak indartzen** ditu, **lurralde-kohesioa** sustatzen du, landa-eremuetako pertsonen osasunaren eta ongizatearen arloan hiri-eremuetakoen **aukera berdina** izatea bermatzen du eta landa-eremuak husteko prozesua **gelditzen** du.

Osasun-arloari dagokionez, [Euskadiko Osasun Publikoari buruzko 2023ko azaroaren 30eko 13/2023 Legeak](#) honela definitzen du osasun publikoa: “Osasun publikoa da politika, programa, zerbitzu eta jarduketa jakin batzuen multzoa, helburua duena osasunaren determinatzaileen gainean jardutea, gaixotasunak prebenitzea eta herritarren osasuna eta ongizatea babestea eta sustatzea”.

Euskadiko landa-eremuetako arazo nagusia osasun-zerbitzuen **eskaintzarekin** eta horien **irisgarritasunarekin** lotuta dago batik bat, eta ez azpiegiturekin. Adierazgarriak dira hiru hiriburuetatik urrun dauden eremuetan profesionalak lortzeko zailtasuna, iristeko zailtasunak (haraino joateko denbora), landa-eremuetan mugitzeko arazoak dituzten pertsonen baliabideak hurbiltzeko zerbitzurik ez izatea eta arretaren kalitatea jaistea, kontsultategien egunen eta ordutegien murrizketarengatik.

Garrantzitsua da lege hori zabaltzeko garaian **landa-eremuen** berezitasunak kontuan izatea, osasunaren arloko politikak, programak eta zerbitzuak diseinatzeko garaian, eta, batez ere, Osasun Sailak zein Osakidetza egiten dituzten estrategiak eta planak diseinatzeko garaian. Osasun-eremuak eta zerbitzuen mapa ikuspegi horretatik berrikustea **aukera** ona da Euskadiko landa-eremuetan bizi diren pertsonen bizi-kalitatea hobetzeko.

Arreta sozialari dagokionez, konpetentziak **hiru administrazio-mailen** artean banatzen dira eta, ondorioz, **zaila da landa-ikuspegia mantentzea edo integratzea**, erakunde eta zerbitzu asko interpelatzen baititu.

Gizarte Zerbitzuen [12/2008 Legeak](#) hau dio: “biztanle kopuruaren aldetik, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren oinarritzko jardun-eremuak 5.000 biztanlekoa izan beharko du, edo, nekazaritza-inguruetan edo gune bereziki behartsu edo andeatuetan jardun behar badu, 3.000 biztanlekoa. Berdin dio biztanle-kopuru hori udalerri bakarrean bildurik edo hainbatean banaturik dagoen”. Legeak hau zehazten du: “Oinarritzko eremua izango da oinarritzko gizarte-zerbitzuen lurralde-eremua (edo, hala balegokio, oinarritzko gizarte-zerbitzuen unitateena) zedarrizteko biztanle-eremua, eta 29. artikuluko 4. paragrafoan ezarritakoaren arabera integratzen dira oinarritzko gizarte-zerbitzuetan”.

Bestalde, Landa-Ingurunearen Garapenari buruzko 7/2022 Legeak ezartzen ditu Euskadiko landa-eremuaren zonifikazio berrirako oinarriak. Euskadiko udalerrien sailkapena egin da oinarri horren gainean, udalerrri bakoitzaren errealitateari erreparatuz. Lurralde Garapeneko Programaren (LuGP) esparru estrategikoan sartzen da sailkapen hori. Hortaz, **“landa eremuen” irismena eta definizioa bateratu beharko litzateke gizarte zerbitzuen mapa bat eta hortik eratorritako estrategiak eta inbertsioak ezartzeko garaian.**

[EAEko Gizarte Zerbitzuen II. Plan Estrategikoan](#) aipatzen da Gobernuko beste sailekin koordinatu behar dela, duen zeharkakotasunarengatik, baina **ez dio berariazko aipamenik egiten landa-eremuari**. Hortaz, aldundiaren ondorengo mapen plangintzarako input gisa hartu beharko litzateke. Hortaz, landa-eremurako ekipamendu eta zerbitzu espezifikoak egokitzeko beharra inplikaturako **eragileen artean** aztertzea **aukera** ona da Euskadiko herritar guztiei gizarte-zerbitzuetarako sarbide parekidea bermatzeko, haien bizilekua edozein izanik ere.

4.4. MUGIKORTASUNA

Landa-espazioaren egituraren eta konfigurazioaren ondorioz, **errepideen azpiegiturek eta garraio publikoek** garrantzi berezia dute, landa-eremuko herritarrek oinarritzko zerbitzuetara **iritsi ahal izatea** bermatzen baitute, eta, gainera, kohesio soziala, garapen ekonomikoa eta enplegua sortzea sustatzen baitute.

Horri dagokionez, [Euskadiko Garraio Jasangarriaren 2030 Gida Planaren](#) helburua da garraio-eredu jasangarri eta integratua lortzea, Euskadiren kohesio sozialerako eta garapen sozioekonomikorako tresna gisa. Lurralde-plangintza egokia lortzeko irisgarritasun unibertsala bultzatzearen helburuarekin lotutako jarduketak-lerro gisa, landa-eremuaren irisgarritasuna bermatzeko beharra jasotzen du plan horrek, eta horretarako, garraio-sistema efizientea eta kalitatezkoa eta landa-garapenari ekarpena egiten diona eskaintzen du.

Bestalde, Euskadiko mugikortasun jasangarriari buruzko [2023ko azaroaren 9ko 11/2023 Legearen](#) 7. artikulua mugikortasun jasangarriko eskubidea jasotzen du, eta honela definitzen du hori: arrazoizko denboran eta prezioan eskaintzen dena, pertsonen bizikaltatea hobetuz eta pertsonen eta ingurumenaren gaineko efektu negatiboak minimizatuz. Joan-etorriak beraien ondorio sozial eta ekologikoekin lotzen ditu eta leku jakin batera iristeko nahi den garraiobidea aukeratzeko eskubidea aldarrikatzen du.

Gainera, [Euskadiko Mugikortasun Jasangarriaren Planaren](#) proiektuaren helburua da lurralde osoarentzako eta herritar guztientzako mugikortasun-baldintzak hobetzea. Helburua da herritarrei gutxieneko irisgarritasuna eta konektagarritasuna bermatzea,

mugikortasun efizientea izan dezaten haien jarduerak berdintasunean eta justizia sozialean egiteko.

Arau-esparru horrek eskubidea aitortzen duen arren, **oso zaila** da irisgarritasun unibertsala bermatzeko garraio publikoa eskaintzea, Euskadiren lurralde konfigurazioa dela eta. Konektatzeko zailtasun espezifikoak daude landa-udalerrietan eta -nukleoetan, eremu horien orografia eta lurralde-konfigurazioa dela eta, eta egoera are zailagoa da barreiatuta dauden eremuen kasuan. Horrek **zaildu egiten du landa-eremuetako edo -auzoetako bizilagunak erreferentziazko erdiguneetara joan ahal izatea**, garraio-zerbitzuak falta direlako edo zerbitzuak dauden kasuetan maiztasuna txikia delako. Oztopo horiek are larriagoak dira zahartze-indizerik handiena duten landa-eremuetan.

Hala ere, garraio publikoaren foru- eta udal-eskaintza asko **hobetu** da azken urteetan eta **mugikortasuneko formula berriak** garatzen ari dira eskari bidezko zerbitzuen eta auzotaxi zerbitzuaren bitartez.

Nolanahi ere, **garrantzitsua da alderdi hori, batez ere, oinarrizko zerbitzuetarako sarbidea bermatzen duelako**: hezkuntza, osasun-arreta eta arreta soziala. Horregatik, aurrerapausoak egin behar dira eta landa-eremuetako beharretara egokitutako mugikortasun jasangarrirako ereduak sustatu, oinarrizko zerbitzuetarako sarbidea bermatzeko eta herrien arteko konexioa sustatzeko (eskualde artekoa). Hala, ehundura sozial aktiboa eta dinamikoa sortuko da.

4.5. GAZTERIA

Gazteak landa-eremuan **mantentzea eta dinamikoak izatea** ezinbestekoa da eremu horien garapenerako eta jasangarritasunerako. Belaunaldien arteko erreleboaren ikuspegitik, **landa-eremuetan jarduera ekonomikoekin eta sozialekin jarraitzea bermatzen** dute gazteek eta, halaber, zahartzearen eta despopulazioaren efektuak arintzen dituzte. Berrikuntza sustatzeko ikuspegi berriak dituzte. Bizitza komunitarioan parte hartzen dutenean ingurune **biziagoa eta kohesionatuagoa** sortzen dute. Gazteek kontzientzia handiagoa dute ingurumen-erronkekiko eta jasangarritasun- eta babes-ekimenak gidatu ditzakete landa-eremuetan.

Hortaz, landa-eremuko gazteen parte-hartzea eta garapena sustatzea ezinbesteko estrategia da eremu horien **etorkizuna bermatzeko**.

Horri dagokionez, gazteak landa-eremuan mantentzeko aukera eraginkorrak falta direla eta herritarrak eta gazteak landa-eremuetan finkatzeko programak aktibatu behar direla egiaztatu ondoren, **Landa-ingurunearen Garapenari buruzko 7/2022 Legeak gazteriarengan jartzen du fokua eta kolektibo horrentzako neurri espezifikoak ezartzen ditu**, gazteen dinamismoa, errotzea eta bizi diren eremuekiko konpromisoa sustatzeko:

zehazki, landa-eremuaren ehundura ekonomikoaren dibertsifikazioaren eta enplegua sortzearen arloan, etxebizitzaren arloan, eta hezkuntzaren, kirolaren eta kulturaren arloan.

Bestalde, [Gazteriaren 2022ko martxoaren 10eko 2/2022 Legearen](#) helburua da gazteei eskubide horiek bermatzea, haien izaera edo egoera edozein izanik ere, eta haien eskubidea babestea eta sustatzea; euskal gizartearen garapen politikoan, sozialean, kulturean eta ekonomikoan parte-hartze aktiboa izan dezaten sustatzea, eta haien autonomia eta emantzipazioa ahalbidetzeko aukerak sortzea, bizi-proiektu propioa, indibiduala eta kolektiboa eraiki dezaten, haurtzarotik hasi beharreko autonomia eta parte-hartze prozesu horrekin amaitzeko. Lege honek **landa-eremua hartzen du kontuan**, printzipio gidarieratik, eta hau dio hirugarrenik: “Lurraldetasuna, hurbiltasuna eta deszentralizazioa. Politikak eta zerbitzuak lurralde bakoitzaren ikuspuntura eta errealitatera egokituko dira, eta pertsonak, taldeak eta komunitate hartzaileak parte hartuko dute; arreta berezia ipiniko zaie landa-eremuaren berezitasunei”. Euskal erakundeek hartzen dituzten konpromisoei buruzko 7. artikuluan 15. puntuan hau jasotzen da: “Landa-eremuko gazteentzako programa espezifikoak sustatzea, aukera-berdintasuna eta zerbitzu publikoetarako irispidea bermatzeko, bai eta bizitza proiektu propioa garatzea bermatzeko ere”. Horrez gain, Gazteriaren arloko Euskal Estrategiaren esku-hartze ildoan barruan, Gazteriarekin eta landa-eremuarekin eta kostaldearekin lotutako arlo espezifiko bat gehitzen du, eta, hala, bat egiten du Landa Garapenerako Legeak kolektibo horri buruz ezartzen dituen printzipioekin eta fokuarekin. Halaber, landa-eremuko ordezkariak aurreikusten ditu kudeaketarako organoetan eta gobernuan.

Hala, ikuspegi desberdin bat dago landa-eremuen kasuan, eta horrek **aukera** ematen du **landa-eremuko lentea edo bermerako landa-mekanismoa aplikatzea** sustatzeko eta bermatzeko lankidetzak-espazioak jorratzeko, Gazteriaren Legea zabaltzeko garaian Euskadiko landa-eremuaren gainean ematen diren jarraibideak jarraituz.

5. EUROPAR BATASUNAREN JOERAK ETA LEHENTASUNAK LANDA GARAPENEAN

Landa-eremua da **Nekazaritzako Politika Bateratuaren bigarren ardatza** eta lehenengo ardatza indartzen du: errentarentzako laguntza eta merkatu-neurriak, landa-eremuetako jasangarritasun soziala, ingurumenekoa eta ekonomikoa hobetuz. 20 urtez Europako politika hau aplikatu ondoren, berriki sustatutako hainbat jarduketatan islatu da ahalegina.

Hala, 2021ean aurkeztu zuten EBren 2040ra arteko [Landa Eremuetarako Epe Luzeko Ikuspegiak](#) aitortzen du landa-eremuak lurralde-koheziarako eta garapen jasangarrirako motorrak direla eta ekintza-arlo gakoak identifikatzen ditu **sendoagoak, konektatuagoak, erresilienteagoak eta oparoagoak** izan daitezen, **tresna digitalek** eskaintzen dituzten aukerak ahalik eta gehien aprobetxatuz eta **berrikuntza soziala** sustatuz. Helburu horiek lortzeko Ekintza Plana diseinatu

zen eta Landa Ituna aktibatu zen. **Landako Ekintza Planak** EBko 14 departamenturekin batera ezarritako 30 ekintza jasotzen ditu.

Testuinguru honetan, [Landa Ituna](#) da autoritate publikoen, gizarte zibilaren, enpresen, mundu akademikoaren eta herritarren arteko **lankidetza-esparrua** eta xede hauek ditu: **landa-komunitateen ahotsa agenda politikoetara eramatea**; lankidetzarako eta ikasteko sareak egituratzea eta sortzea; eta landa-eremuetarako epe luzerako ikuspegiaren aldeko konpromiso boluntarioak sustatzea eta monitorizatzea. 2025ean, indartu egingo da Landa Ituna, interesdunen elkarriketarako eta parte-hartzerako tresna gisa.

Abian jarritako beste tresnetako bat **landa-biziberritzeko plataforma** da. Inplikaturako aldean arteko lankidetza sustatu eta ahalbidetzen duen **leihatila bakarra** da eta ezinbesteko rola jokatzeko du politikak eta ekimenak diseinatzeko eta ezartzeko Europan, estatuan eta tokian dauden ezagutzak partekatzeko, itzultzeko eta egokitzeko garaian.

Halaber, [Rural Proofing](#) ikuspegia (bermerako landa mekanismoa) aplikatu du EBk, **araudia eta politikak landa-ikuspegitik berrikusteko** eta estatuko, erkidegoko eta tokiko araudi guztia landa-behar eta -eskarietara egokitzea sustatzeko metodologia gisa. Martxoaren 24ko Nekazaritza Ministroen Kontseiluaren ostean, mekanismo hau maila instituzional guztietan aplikatzearen alde agertu ziren ministro asko.

[Landa Behatokia](#) landa-eremuetako **datuak biltzeko eta zabaltzeko** jarri da martxan eta **lurralde-plangintzarako**, zein maila guztietako **erabakiak hartzen laguntzeko tresna** da. Hala, ezinbesteko rola jokatzeko du Rural Proofinga ezartzeko eta politikak diseinatzeko garaian.

[Nekazaritzarako eta Elikadurarako Ikuspegiak](#) (2025eko otsailak 19) 2040rako Europako nekazaritzako elikagaien sistemaren ikuspegia ezartzen du, sistema horren **lehiakortasuna, erakargarritasuna eta epe luzerako jasangarritasuna bermatzeko**. Sektorearekin eta maila guztietako erakundeekin (erkidegokoak eta tokikoak barne) elkarriketa gehiago izateko beharra gehitzen du eta soluzio uniformerik ezin dela eman nabarmentzen du. Hala, erantzunak lurraldekoak eta egokituak izan behar dutela ezartzen du. Halaber, funtsezkoa iruditzen zaio **landa-eremu dinamikoak** izatea despopulazioaren aurka egiteko eta aktibatutako tresnak indartzea eta eguneratzea aurreikusten du, tartean, Landa Eremuko Ekintza Plana eta Landa Eremuko Ituna. Ikuspegi hau EBko politika guztietan komuna izan dadin proposatzen du.

Landa Eremuetarako Epe Luzeko Ikuspegiak zein Nekazaritza eta Elikadurarako Ikuspegiak aurreikusten dute **LEADERen** moduko **partaidetzako tokiko garapeneko tresnak** eta beste lankidetzarako modu batzuk indartzea, besteak beste, **Smart Villageak**. Izan ere, tresna horien eraginkortasuna berretsi egin da. Estrategia horien helburua da bizi- eta lan-baldintza bidezkoak bermatzea Europako landa-eremuetan, eta biztanleriaren zahartzeak eta despopulazioaren joerak eragindako belaunaldien arteko erreleboaren arazoa jorratzea.

NPBren Plan Estrategikoa (NEPPE 2023-2027) da estatuan eta erkidegoan NPBren bi ardatzak aplikatzeko aukeratutako esku-hartzeak jasotzen dituen tresna. Bigarren ardatzaren kasuan, ingurumenaren, klimaren eta kudeaketaren konpromisoekin lotutako esku-hartzeak egin dira [Euskadin](#), muga naturalen moduko eremuak eta beste eremu espezifiko batzuk babestu dira, eta inbertsioak, ekintzailatza eta lankidetza lagundu.

NPBren Europako Sarea landa-eremuaren garapen sozioekonomikoan inplikatur dauden pertsonak eta erakundeak konektatzeko helburuarekin sortu da eta eztabaida eta jardunbide egokien trukea sustatzen ditu, ezagutzaren transferentzia indartuz.

2027 osteko NPBr buruzko eztabaidetan, Europako nekazaritzako ministroek nabarmendu dute garrantzitsua dela landa-komunitate indartsuak sustatzea EB osoaren oparotasunerako, eta **Rural Proofinga eta aurrekontu egokia eta bi ardatz desberdin dituen etorkizuneko NPBa** aplikatzearen alde egin dute, landa-eremuak babesteko. Hala, baztertu egin dute NPB barne hartuko duen estatu mailako funts bateratua eratzeko EBk egindako proposamena.

II. BLOKEA: ESPARRU ESTRATEGIKOA

6. IKUSPEGIA, HELBURU ESTRATEGIKOA ETA ESKU-HARTZE ARLOAK

Landa garapenerako estrategia honen erreferentzia Landa-Ingurunearen Garapenari buruzko 7/2022 Legeak planteatzen duen Euskadiko landa eremurako ikuspegia da. Ikuspegi honen xedea da **Euskadiko landa eremua herrialdearen garapen eta kohesio ekonomikorako, sozialerako eta lurralderako funtsezko faktore bihurtzea, landa eremua lurraldeko gainerako inguruneen baldintza berberetan integratu dadin, bizi-kalitateari, berrikuntzari, modernitateari eta ekintzailatzari dagokionez, eta, hala, herrialdearen ikuspegi integratuagoa lortzen laguntzea.**

Ikuspegi honekin bat etorriz, Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren xedea da **landa eremuko bizi-kalitatea hobetzea eta ahalduntzea; zerbitzuak hobetuz, jarduera ekonomikoa sustatuz eta Euskadiko landa-eremua zainduz.** Hortaz, **erronka hori da estrategia honentzako helburu estrategikoa.**

Testuinguru honetan, landa-garapenerako estrategia hau hiru **esku-hartze** arlotan egituratzen da eta aurreikusitako ekintza guztiak egituratuz. Hauek dira arloak: **plangintza, gobernantza eta dinamizazioa.**

Hiru esku-hartze arlo hauek ez dute modu isolatuan jarduten, jarduketa-logika osagarrian eta hainbat mailatakoan integratzen dira. Alde batetik, **dinamizazioa** da estrategiaren dimentsiorik zuzenena, eragin zehatza baitu lurraldean, jarduera ekonomikoa, soziala eta espazioa zaintzekoa sustatzen duten eta landa-eremuak birgaitzeko aurrerapausoak ematea ahalbidetzen duten ekintzen bitartez. Bestalde, **plangintza** eta **gobernantza** dira dinamizazio-ekintza hauek modu **koherentean, eraginkorrean eta jasangarrian** garatzeko tresna gakoak eta koordinazio egokia sustatzen dute eragileen, politiken eta baliabideen artean. Hala, sinergia-harremana sortzen da esku-hartze zuzenaren eta laguntza-tresnen artean eta modu solidoago eta eraldatzaileagoan ezar daiteke landa-garapenerako estrategia.

PLANGINTZA

Euskadiko landa-eremua **planifikatzeko tresnak** landa-garapenerako politikaren **elementu gakoak** dira, izan ere, landa-eremuen garapenerako egin behar diren askotariko jarduketak tresna horien gainean artikulatzen dira eta, hala, tokiko proiektuak eta ekimenak politika instituzionalekin **lerrokatzen** dira.

Oinarrizko bi plangintza-tresna daude: Lurralde Garapenerako programak (LuGP) eta Landa-garapenerako Eskualdeko Programak (LGEP).

Bestalde, **Euskadiko landa-eremuen ezaugarriak** kontuan izan beharko ditu plangintza horrek. Oro har, gure landa-eremua hiri-eremuarekin uztartuta dago, baina bereizgarriak dira. EAEko landa-eremuaren karakterizazioa oso garrantzitsua da **landa-eremuek garapen-arloei dagokienez dituzten beharrak eta ezaugarriak identifikatzeko**; izan ere, landa-garapenerako politika espezifikoak eta haien laguntza-programak diseinatzeko eta aplikatzeko aukera ematen dute, garaia eta lurraldeko lehentasunen arabera.

- ✓ **Plangintzaren helburu espezifikoa:** landa-eremuen garapenerako ekimenak eta proiektuak politika instituzionalekin bat datozela bermatzeko erreferentziazko esparrua egituratzea.

GOBERNANTZA

EAEko landa-eremuen politika sektorialak aplikatzeko garaian, gobernantza eta erakundeen arteko lankidetzak-mekanismoak dira Landa-Ingurunearen Garapenerako 7/2022 Legearen ezarritako beste ardatzak, **ekintza publiko koordinatua, koherentea eta eraginkorra** lortu ahal izateko. Hala, bi kategoria desberdin aurreikusten dira: ikuspegi instituzionaleko gobernantza eta tokiko ikuspegia duen gobernantza.

Gobernantza instituzionala da Eusko Jaurlaritzaren, Foru Aldundien eta tokiko erakundeen jarduketara estrategikoak barne hartzen dituen, bakoitzari dagozkion arloetan. Gobernantza instituzionalaren maila horretan, Legearen xedea da **zaintzaren ikuspegian** edo politika instituzionalen eta sektorialen **landa-eremuko lantzean** eragina izatea, landa-garapenerako politiketan aurreikusita dauden helburuetara eta jarduketetara egokitzeko. EBko herrialde batzuk ezartzen ari dira dagoeneko ikuspegi hori.

Tokiko ikuspegiaren gobernantzari dagokionez, araudi berriak egungo ereduak hobetzea proposatzen du lankidetzak publiko-pribatuaren formula baten bidez, batez ere, **landa-garapenerako elkarteak**, Eusko Jaurlaritzaren eta Foru Aldundien arteko harremanen kasuan. Hala, elkarte horiek ekarpen eraginkorragoa egingo dute Legearen helburuak betetzeko.

Lurralde, lurraldearen garapenerako Hazi Fundazioaren kudeaketa-zerbitzua eta **Landa Garapenerako Euskal Sarea** dira tokiko gobernantzaren beste bi elementuak.

- ✓ **Gobernantzaren helburu espezifikoa:** ekintza publiko-pribatu koordinatua, koherentea eta eraginkorra lortzea EAEko landa-eremuetan politika sektorialak aplikatzeko.

DINAMIZAZIOA

Landa-eremuen dinamizazioa **funtsezko** elementua da; izan ere, komunitateak **birgaitzeko**, jarduera ekonomikoak **sustatzeko** eta biztanleen bizi-kalitatea **hobetzeko** aukera ematen du. Horrez gain, dinamizazioak tokiko kultura eta tradizioa zaintzen laguntzen du eta horrek **komunitateen identitatea** aberasten du. Faktore garrantzitsua izan daiteke hori **lurraldearen jasangarritasuna** sustatzeko.

Jarduera ekonomikoaren sustapenaren ikuspegitik, landa-eremuak garrantzi estrategiko handia hartzen du **dibertsifikazio ekonomikorako eta ekintzailtzarako** espazio gisa, batez ere, nekazaritzako industrian, turismo jasangarrian, bioekonomikoan eta ekonomia sozialean, besteak beste.

Landa-eremuak indartzean, garapen orekatuagoa sustatzen da hiriaren eta landaren artean, eta horrek tokiko arlotik harago doazen eta gizarte osoarengana iristen diren onurak sortzen ditu. Laburbilduz, landa-eremua dinamizatzean herritarren bizi-kalitatea hobetzeaz gain, ongizate kolektiboa aberastu eta lurralde-kohesioa indartzen da.

Testuinguru honetan, landa-eremuak eraldatzeko **proiektu estrategikoak** sustatzea tresna eraginkorra da baliabide endogenoak aktibatzeke, tokiko ekintzailtza babesteko eta eskualde bakoitzeko berezitasunetara egokitutako berrikuntza-prozesuak ahalbidetzeko.


- ✓ **Dinamizazioaren helburu espezifikoak:** Landa-komunitateak birgaitzea, jarduera ekonomikoa sortzeko, indartzeko eta erreleboa bermatzeko; herritarren bizi-kalitatea hobetzeko; eta Euskadiko landa-eremua zaintzeko ekimenen eta proiektuen bitartez.



7. EKINTZA PLANA

Esparru estrategikoan definitutako hiru esku-hartze arloren gainean konfiguratu da ekintza-plana: plangintza, gobernantza eta dinamizazioa. Jarduketa-ardatzak definitu dira horietako bakoitzarentzat, helburu operatibo propioarekin eta dagozkien ekintzekin.

Hala, ekintza-plan hau **12 jarduketa-ardatzaren eta 38 ekintzaren** gainean egituratzen da. Ardatzei eta ekintzei dagokien informazioa fitxa moduan dago jasota, eta ekintza bakoitzaren deskribapenaz gain, inplikaturako erakundeei buruzko informazioa, ekintza gauzatzeko kronograma, eta jarraipena eta ebaluazioa egiteko definitutako adierazleen sistema ageri dira. Horrez gain, ulermena, plangintza eta jarraipena ahalbidetzeko, fitxa bakoitzak identifikazio-kodea darama.



Bestalde, **berrikuntza soziala** ekintza-plan honen zeharkako printzipio bezala integratzen da.

Landa-ingurunearen Garapenari buruzko 7/2022 Legearen helburu sektorialen artean dago “Euskal landa-ingurunean berrikuntza sozialaren eredu jakin bat garatzea; eredu horren oinarriak dira eragile anitzeko ikuspegiak, baterako sorkuntza, herritarren zientzia eta arlo publikoaren eta pribatuaren arteko elkarlan-formula berrien aldeko apustua”.

[Berrikuntza sozialaren](#) ikuspegia erronka sozialak jorratzeko beste modu bat da: normalean **behetik gora** sortzen diren soluzioak sustatzen ditu, harreman sozialak eta gobernantza-ereduak birkonfiguratzeko prozesuen bitartez. **Berrikuntza soziala** ebatzi gabeko beharrei erantzuteko **zerbitzu, prozesu edo antolaketa-eredu berrien** bidez adierazten da eta, aldi berean, **sinergiak, lankidetzarako modu berriak eta jokabide sozialen aldaketak sortzen dira**.

Landa-eremuan proiektatuta, ikuspegi honek aukera ematen du lurraldeko arazo espezifikoari erantzuteko ekimenak aktibatze eta eragilearen artean **parte hartzeko eta lankidetzarako eredu berriak** sustatzeko. Ildo honetatik, [Europako SIMRA proiektua](#) erreferentea da landa-eremuetan berrikuntza sozialaren kontzeptualizazioan eta azterketan, berrikuntza sozialaren dimentsio komunitarioa nabarmenduz. Hala, proiektu honen azken xedea **gizarte zibileko eragilearen ongizate soziala eta konpromiso aktiboa da**. SIMRaren arabera, berrikuntza soziala hau da: “*jardunbide sozialak (harremanak, lankidetzak, sareak, erakundeak, gobernantza-*


egiturak) birkonfiguratzearrionka sozialei erantzuteko eta ongizate soziala hobetzeko, eta gizarte zibileko eragileen parte hartzea barne hartuz”.

Kasu batzuetan, berrikuntza soziala **ekintzailetza sozialarekin** lotu izan da, eta arronka sozialei erantzuteko negozio-ideiak sustatu dira. Ikuspegi horretatik, **sustapen ekonomikorako** programetan integratu ohi da, baina, hala ere, **ongizate sozialari eta lurralde-eraldaketari** ekarpena egiteko gaitasuna du, batez ere, politika publikoetan txertatzeko garaian.

Berrikuntza sozialak **helburu bikoitza** du: alde batetik, landa-eremuko arronkak jorratzen dituzten **proiektu zehatzak jartzen ditu martxan**; eta, bestetik, **lankidetzadynamika jasangarriak** sortzen ditu, ehundura komunitarioa indartzeko, bizi-kalitatea hobetzeko, biztanleria finkatzea sustatzeko eta lurraldearen eraldaketari ekarpena egiteko modu inklusibo eta parte-hartzailean.

7.1. PLANGINTZA

Plangintzaren esku-hartze arloa bost jarduketa-ardatzen gainean egituratzen da. Ardatz hauek dira: Lurralde Garapenerako Programa (LuGP), Bermerako Landa Mekanismoa (landa-lentea), Landa Garapenerako Eskualdeko Programak (LGEP), Programazio-aldi berrirako landa-eremuen identifikazioa eta sailkapena eta Partaidetzako Tokiko Garapena (PTG) eta 2027 osteko LEADER programa.



Jarduketa-ardatz bakoitzaren fitxarekin batera aurkeztuko da definitutako ekintza bakoitzari dagokion fitxa.

7.1.1. LURRALDE GARAPENENKO PROGRAMA (PLA-EA1).

Jarduketa-ardatza PLA-EA1	LURRALDE GARAPENENKO PROGRAMA (LuGP)
Helburu Operatiboa	LuGPren tramitazioa eta ituntzea.
Esku-hartze arloa	PLANGINTZA
Deskribapena	
Lurralde Garapeneko Programa (LuGP) landa-eremuaren garapen sozioekonomikora bideratutako politika, helburu orokor, helburu sektorial eta jarduketa-ardatzak artikulatzeko esparru estrategikoa da . Landa-Ingurunearen Garapenari buruzko arabera, LuGPk landa-eremuko ekintza politiko instituzionalaren eta multisektorialaren bide-orria izan behar du eta Landa Garapenerako Eskualdeko Programak (LGEP) egiteko eta lerrokatze erreferentziazko dokumentua, bai eta, hala badagokio, tokiko garapen-	

estrategia ere. Hau guztia, jarduketa bakoitzaren espazio geografikoari eragiten dioten lurraldearen antolamendurako tresnak errespetatuz.						
Halaber, LuGPk ezarri behar ditu Bermerako Landa Mekanismoa (landa-lentea edo rural proofinga) ezartzeko oinarriak. Mekanismo honen helburua da politika publiko garrantzitsu guztiak, baita landa-garapenekoak ez direnak ere, landa-eremuaren beharretara eta ezaugarrietara egokitzea eta, hala, ingurune hori biziberritzea.						
Ekintzak						
PLA-EA1A1: LuGP onartzeko beharrezko tramitazio administratiboa kudeatzea						
PLA-EA1A2: Hitzarmena aktibatzea eta prozesu honetatik sortzen diren ekimenak martxan jartzea, sailen arteko eta/edo erakundeen arteko lantaldeak osatuz.						
PLA-EA1A3 LuGP sozializatzeko kanpaina bat egitea, zabalpenaren bitartez						
PLA-EA1A4 LuGPren inaktuaren jarraipena eta amaierako ebaluazioa egitea.						
Egutegia						
2025		2026		2027		2028
2029		2030				
X		X		X		X
Erakunde arduraduna		Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Saila				
Inplikaturako erakundeak		Landa-garapenaren arloan eskumenak dituzten Foru Aldundietako Sailak.				
		Inplikaturako beste sail batzuk, bai Eusko Jaurlaritzakoak, bai Foru Aldundietakoak.				

Jarduketa-ardatz honek lau ekintza gauzatzea aurreikusten du.

PLA-EA1A1 ekintza:	LuGP onartzeko beharrezko tramitazio administratiboa kudeatzea
Esku-hartze arloa	PLANGINTZA
Jarduketa-ardatza	PLA-EA1: LURRALDE GARAPENeko PROGRAMA (LuGP)
Deskribapena	
Landa-Ingurunearen Garapenari buruzko 7/2022 Legearen 9. artikuluko 6. puntuan jasotzen den moduan, LuGP egin ondoren, Nekazaritzako, Elikadurako eta Landa Garapeneko Politikaren Batzordearen aldeko txostena izan beharko du, eta aldez aurretik kontsultatu beharko zaie Nekazaritzako, Elikadurako eta Landa Garapeneko Batzordeari	

eta zuzenean inplikaturako tokiko erakundeei. Halaber, Gobernu Kontseiluaren Akordioaren bidez eta inplikaturako lurraldeetako Foru Aldundietako organo eskudunek onartu beharko dituzte.

Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Sailari dagokio tramitazio-prozesu horrekin lotutako faseak planifikatzea eta tramitatzea.

Egutegia					
2025	2026	2027	2028	2029	2030
X	X				
Erakunde exekutatzailea		Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Saila			
Inplikaturako erakundeak		Landa-garapenaren arloan eskumenak dituzten Foru Aldundietako Sailak.			
Betetze-mailaren adierazleak					
Adierazlea				Helburua	
Nekazaritzako, Elikadurako eta Landa Garapeneko Politikaren Batzordearen aldeko txostena				Bai	
Tramitazio-prozesua amaitua				Bai	

PLA-EA1A2 ekintza		Hitzarmena aktibatzea eta prozesu honetatik sortzen diren ekimenak martxan jartzea, sailen arteko eta/edo erakundeen arteko lantaldeak osatuz.			
Esku-hartze arloa		PLANGINTZA			
Jarduketa-ardatza		PLA-EA1: LURRALDE GARAPENeko PROGRAMA (LuGP)			
Deskribapena					
LuGP Landa-Ingurunearen Garapenari buruzko Legearen hiru helburu estrategikoen eta hainbat jarduketa-ardatzen gainean dago egituratuta; halaber, ardatz horiek lotuta daude Lege horretako helburu sektorialekin. Ardatz horien lehentasun-mailari eta testuinguru bakoitzaren aukerei erreparatuz, sail eta administrazio eskudunekin hitzartze-prozesuak aktibatzea aurreikusten da. Hala, aurrerapausoak egingo dira bermerako landa mekanismoaren ezarpenean, elkarrekin sustatu beharreko lan-ildoak modu koordinatuan identifikatuz eta LuGPn jasotako gomendioak abiapuntutzat hartuz. Horretarako, sailen arteko eta/edo erakundeen arteko lantaldeak eratzea aurreikusten da, hasierako egoera aztertze eta LuGPren helburuei eta proposamenei erantzuteko agertoki berriak aztertze.					
Egutegia					
2025	2026	2027	2028	2029	2030
	X	X	X	X	X
Erakunde exekutatzailea		Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Saila			

Inplikaturako erakundeak	Landa-garapenaren arloan eskumenak dituzten Foru Aldundietako Sailak.	
	LuGParen lehenetsitako arloei edo ardatzei dagozkien sailak (bai Eusko Jaurlaritzakoak, bai Foru Aldundietakoak).	
Betetze-mailaren adierazleak		
Adierazlea		Helburua
Irekitako hitzartze-prozesuen kopurua		10
Aktibatutako sailen arteko taldeen kopurua		6

PLA-EA1A3 ekintza		LuGP sozializatzeko kanpaina bat egitea, zabalpenaren bitartez			
Esku-hartze arloa		PLANGINTZA			
Jarduketa-ardatza		PLA-EA1: LURRALDE GARAPENENKO PROGRAMA (LuGP)			
Deskribapena					
Lurralde Garapeneko Programa (LuGP) komunikazio- eta zabalpen-ekintzen bitartez sozializatzea ezinbestekoa da bere legitimazioa, eraginkortasuna eta jasagarritasuna bermatzeko. Ekintza hauekin LuGPren edukia inplikaturako erakundeetara, herritarrengana, gizarte-eragileengana, tokiko erakundeengana eta lurraldeko beste eragile batzuek hurbiltzeaz gain, ulertzeko, egokitze eta ezarpenarekin konprometitzeko; erakundeengandik sustatzen da, landa-garapenarekin duten konpromiso publikoa ikusarazten da eta konfiantza sortzen da lurralde-plangintzaren arloan. Azken batean, LuGP komunikatzea ez da soilik dokumentu bat zabaltzea; lurralde-koheretza indartzeko, politika publikoak legitimatzeko eta landa-garapenaren kultura partekatuari ekarpena egiteko prozesua aktibatzea da.					
Egutegia					
2025	2026	2027	2028	2029	2030
	X				
Erakunde exekutatuak		Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Saila			
Inplikaturako erakundeak		Landa-garapenaren arloan eskumenak dituzten Foru Aldundietako Sailak.			
Betetze-mailaren adierazleak					

Adierazlea	Helburua
Zabalpenerako ekimenen edo ekitaldien kopurua	2
Erabilitako komunikabide kopurua	3

PLA-EA1A4 ekintza		LuGPren inpaktuaren jarraipena eta amaierako ebaluazioa egitea			
Esku-hartze arloa		PLANGINTZA			
Jarduketa-ardatza		PLA-EA1: LURRALDE GARAPENeko PROGRAMA (LuGP)			
Deskribapena					
LuGPK inpaktuaren adierazleen sistema bat du landa-eremuen eboluzioa planteatutako hitzarmen-arloen arabera ebaluatzeko. Adierazle horiek Landa-Ingurunearen Garapenari buruzko Legean finkatutako helburu estrategikoekin lotuta daude eta landa-eremuen karakterizazioarekin dute zerikusia. Ekintza honetan, errealizazio- eta emaitza-adierazleetan oinarritutako prozedura bat diseinatzea planteatzen da, jorratutako arloetan helburuak betetzen direla ebaluatzeko eta LuGPren jarraipena eta ebaluazioa egiteko.					
Egutegia					
2025	2026	2027	2028	2029	2030
			X		X
Erakunde exekutatzailea		Landa Garapenaren eta Europako Politiken zuzendaritza			
Inplikaturako erakundeak		Ez da halakorik			
Betetze-mailaren adierazleak					
Adierazlea				Helburua	
LuGPren jarraipena eta ebaluazioa egiteko prozedura				Bai	
Ebaluazio-txostenak				2	

7.1.2. BERMERAKO LANDA MEKANISMOA (PLA-EA2).

Jarduketa-ardatza PLA-EA2	BERMERAKO LANDA MEKANISMOA (LANDA LENTEA).
Helburu Operatiboa	Bermerako landa mekanismoa (landa-lentea) arautzea eta ezartzea.
Esku-hartze arloa	PLANGINTZA
Deskribapena	
Landa-Ingurunearen Garapenari buruzko 7/2022 Legean aurreikusitako landa-eremuetan eragina duten helburu orokor edo sektoriale dagozkien Euskadiko	

administrazioen planak, programak eta ekimenak onartu aurretik, txosten loteslea egin beharko du erakunde sustatzaileko landa-garapenaren arloko sail eskudunak. Eta, horri dagokionez, txosten horiek aztertzeke eta igortzeko erreferentziazko elementu garrantzitsua da LuGP.					
Ekintzak					
<u>PLA-EA2A1:</u> Bermerako landa mekanismoa (landa lentea) aplikatzeari dagokionez dauden esperientziak aztertzea.					
<u>PLA-EA2A2:</u> Txostenen kudeaketarako eta ondorengo jarraipena egiteko beharrezkoa den araudi-prozesua jorratzea.					
<u>PLA-EA2A3:</u> Txostenak kudeatzeko talde tekniko arduraduna eratzea eta funtzionamendu-protokoloa ezartzea.					
Egutegia					
2025	2026	2027	2028	2029	2030
X	X				
Erakunde arduraduna		Landa Garapenaren eta Europako Politiken zuzendaritza			
Inplikaturako erakundeak		Hazi Fundazioa			

Jarduketa-ardatz honek hiru ekintza gauzatzea aurreikusten du.

PLA-EA2A1 ekintza		Bermerako landa mekanismoa (landa lentea) aplikatzeari dagokionez dauden esperientziak aztertzea.			
Esku-hartze arloa		PLANGINTZA			
Jarduketa-ardatza		PLA-EA2: BERMERAKO LANDA MEKANISMOA (LANDA LENTEA).			
Deskribapena					
Bermerako landa mekanismoa (landako lentea) abian jartzeko, estatuan, Europan zein nazioartean dauden ereduak aztertzea proposatzen da, Euskadin behar bezala aplikatzeko inspirazio elementuak lortzeko.					
Egutegia					
2025	2026	2027	2028	2029	2030
X					
Erakunde exekutatzailea		Landa Garapenaren eta Europako Politiken zuzendaritza			
Inplikaturako erakundeak		Hazi Fundazioa			

Betetze-mailaren adierazleak	
Adierazlea	Helburua
Bermerako landa-mekanismoa (landa lentea) aplikatzeko aztertutako ereduak.	8
Analisi-txostena	1

PLA-EA2A2 ekintza		Txostenen kudeaketarako eta ondorengo jarraipena egiteko beharrezkoa den araudi-prozesua jorratzea.			
Esku-hartze arloa		PLANGINTZA			
Jarduketa-ardatza		PLA-EA2: BERMERAKO LANDA MEKANISMOA (LANDA LENTEA)			
Deskribapena					
Egun, Eusko Jaurlaritzako Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Saileko zerbitzu juridikoak uste du dagoeneko egin daitezkeela Landa-Ingurunearen Garapenari buruzko Legearen 13. artikuluan aipatzen diren txosten lotesleak, arlo horretako xedapenak betetzeko, komeni da arau-testu bat ezartzea horretarako, txosten hori zer kasutan eta zer gaitarako behar den eta jarraipena nola egingo den argitzeko, behar bezala ezar dadin. Hortaz, aplikazioa eta erabilera arautzeko araudia egitea da ekintza gakoetako bat. Landa-Ingurunearen Garapenari buruzko Legeak 13. Artikuluan "aipatutako administrazioetako bakoitzean landa-garapenaren arloan eskumena duten zuzendaritzek edo unitateek honako eginkizun eta jarduketa hauek bete beharko dituzte: a) Aurreko apartatuan ezarritako nahitaezko txostenak egitea. b) Artikulu honetako 5. zenbakian adierazitako gomendioen eta txosten lotesleen betetze-mailaren jarraipena egitea".					
Egutegia					
2025	2026	2027	2028	2029	2030
X	X				
Erakunde exekutatzailea		Landa Garapenaren eta Europako Politiken zuzendaritza			
Inplikaturako erakundeak		Ez da halakorik			
Betetze-mailaren adierazleak					
Adierazlea				Helburua	
Bermerako landa-mekanismoaren (landako lentea) aplikazioa arautzen duen araua eginda				Bai	
Onartutako araua				Bai	

PLA-EA2A3 ekintza	Txostenak kudeatzeko talde tekniko arduraduna eratzea eta funtzionamendu-protokoloa ezartzea.				
Esku-hartze arloa	PLANGINTZA				
Jarduketa-ardatza	PLA-EA2: BERMERAKO LANDA MEKANISMOA (LANDA LENTEA).				
Deskribapena					
Eusko Jaurlaritzako Landa Garapenaren eta Europar Politiken Zuzendaritzak eratuko du txostenak kudeatzeaz arduratuko den lantaldea eta bere funtzionamendu-protokoloa ezarriko du. 13. artikulua hau aurreikusten du: “Zuzendaritza edo unitate horiek, hala badagokio, Lurralderen laguntza teknikoa izango dute, alegia, Hazi Fundazioaren kudeaketa-zerbitzuaren laguntza. Erregelamenduz ezarriko dira honako hauek administrazio bakoitzaren barruan: antolaketa, erabakiak hartzeko eta txostenak izapidetzeko prozedurak, txostenekiko desadostasunak gertatuz gero sor daitezkeen kasuistikak, eta apartatu honetan agindutako eginkizunei buruz sor daitezkeen beste gai batzuk “ Hortaz, ekintza horren baitan, Gobernuaren talde arduraduna eta Hazi Fundazioaren arabera beharrezkoa den laguntza artikulatuko dira, txostenak eta taldearen funtzionamendua artikulatzeko protokoloa behar bezala prestatzeko eta jarraipena egiteko.					
Egutegia					
2025	2026	2027	2028	2029	2030
X	X				
Erakunde exekutatzailea		Landa Garapenaren eta Europako Politiken Zuzendaritza			
Inplikaturako erakundeak		Hazi Fundazioa			
Betetze-mailaren adierazleak					
Adierazlea				Helburua	
Lantaldea aktibatuta				Bai	
Funtzionamendu-protokoloa eginda				Bai	

7.1.3. LANDA GARAPENERAKO ESKUALDEKO PROGRAMAK (PLA-EA3).

Jarduketa-ardatza PLA-EA3	LANDA GARAPENERAKO ESKUALDEKO PROGRAMAK (LGEP).
Helburu Operatiboa	LGEP bakoitza egiteko eta urtero zabaltzeko prozesuak zaintzea ikuspegi metodologikotik eta emaitzen jarraipena eta ebaluazioa egitea, bai eskualde-mailan, bai Euskadi osoko mailan.

Esku-hartze arloa	PLANGINTZA				
Deskribapena					
LGE Pak egiteko eta gerora kudeatzeko prozesua metodologia komun batean oinarritzen da eta metodologia hori diseinatzeko kontuan hartu da goranzko ikuspegi parte-hartzailea («bottom-up»), eskualdeko ekonomiaren, gizartearen eta ingurumenaren arloko eragilerik adierazgarrienak inplikatzeko. Metodologia Nekazaritza, Elikadura eta Landa Garapen Politikako Batzordearen barruan baloratu eta adostu da. Eskualdeen artean sinergiak eta proiektu komunak koordinatzea eta bilatzea LGE Pak egin ostean jorratu beharreko erronka da: ahaleginak eta baliabideak bateratzeak ekarpena egingo du lurraldean are inpaktu handiagoa lortzeko. Halaber, Landa-Ingurunearen Garapenari buruzko Legeak programa bakoitzaren tarteko ebaluazioa egitea aurreikusten du, eta, hala, aldaketak egin daitezke erakunde ebaluatzaileak hala gomendatuz gero. Aldaketa horiek egokitzen joko dituzte landa-garapenaren arloko Eusko Jaurlaritzako eta hiru Foru Aldundietako sailek, Elikadura eta Landa Garapen Politikako Batzordeak onartu ondoren. Azkenik, Legearen 10.5 artikulua ezartzen du LGE P aplikatzeko denbora-eremua LuGPren berbera izango dela. Halaber, denbora-eremu horiek bat datoz EBren egiturazko funtsen hainbat urterako esparru finantzarioekin. Hori dela eta, atal honetan aurreikusitako ekintzak 2028ra bitarteko denbora-tarterako planifikatu dira, baina PLA-EA3A5 ekintzan jasotzen den ebaluazioaren arabera egindako eguneraketari esker, 2028-2034 aldirian ere estrategia hauek garatzen jarraitu ahal izango da.					
Ekintzak					
PLA-EA3A1:					
LGE P bakoitza egiteko eta zabaltzeko prozesuan LGEak koordinatzea eta metodologikoki laguntzea.					
PLA-EA3A2:					
LGE-ei interes komuneko jarduketa-lerroak identifikatzen laguntzea, eta proiektu estrategikoak jorratzeko lankidetzak-aukerak kanalizatzea.					
PLA-EA3A3					
LGE Pen zabalpena kudeatzeko eta jarraipena egiteko plataformaren diseinua osatzea, martxan jarri eta kudeatzea.					
PLA-EA3A4					
LGE Pak onartzeko beharrezko tramitazio administratiboa kudeatzea eta koordinatzea.					
PLA-EA3A5:					
Dagozkion ebaluazioak egiteko prozedura ezartzea eta LGE Pen jarraipena egiteko eta eguneratzeko prozesuak aktibatzea.					
Egutegia					
2025	2026	2027	2028	2029	2030
X	X	X	X	X	X

Erakunde arduraduna	Eusko Jaurlaritzako Landa Garapenaren eta Europar Politiken Zuzendaritza.
Inplikaturako erakundeak	Landa-garapenaren arloan eskumenak dituzten Foru Aldundiko zuzendaritzak, Hazi Fundazioa, LGEak eta tokiko erakundeak.

Jarduketa-ardatz honek bost ekintza gauzatzea aurreikusten du

PLA-EA3A1 ekintza	LGEP bakoitza egiteko eta zabaltzeko prozesuan LGEak koordinatzea eta metodologikoki laguntzea.				
Esku-hartze arloa	PLANGINTZA				
Jarduketa-ardatza	PLA-EA3: LANDA GARAPENERAKO ESKUALDEKO PROGRAMAK (LGEP).				
Deskribapena					
Ekintza honek LGEPak egiteko, exekutatze eta jarraipena egiteko metodologia komuna diseinatzea eta ezarpenaren gaineko aholkularitza eta jarraipena egitea aurreikusten du, plangintza estrategikoa modu ordenatu eta koherentean egin dadin eskualde guztietan. Hala, Landa Garapenerako Elkarteei (LGE) dagokie LGEP bakoitza prestatzea, martxan jartzea eta jarraipena egitea. Bien bitartean, Hazi Fundazioak laguntza metodologikoa ematen du eta jarraipena eta ebaluazioa koordinatzen ditu eskualdeetan, eta Euskadi mailako irakurketa orokorrean arduratzen da. LGEPak aplikatzeko denbora-eremua LuGPren berdina dela kontuan izanik, ekintza honen denbora-tartea 2030era bitartekoa da; izan ere, PLA-EA3A5 ekintzan jasotzen den tarteko ebaluazioarekin eguneratzea aurreikusten da. Hala ere, jasotako adierazleak LGEPren egungo zabalpenari egiten diote erreferentzia.					
Egutegia					
2025	2026	2027	2028	2029	2030
X	X	X	X	X	X
Erakunde exekutatzailea	Hazi Fundazioa				
Inplikaturako erakundeak	Landa-garapenaren arloan eskumenak dituzten Eusko Jaurlaritzako eta Foru Aldundietako Zuzendaritzak eta LGEak.				
Betetze-mailaren adierazleak					
Adierazlea				Helburua	
Egindako eta onartutako metodologia komuna				Bai	

LGE Pak egiteko lagundutako prozesuen kopurua (metodologikoki)	18
Hazi Fundazioaren eta LGEen eskualde mailako koordinazio-bileren kopurua zabalpen-fasean	108

PLA-EA3A2 ekintza		LGE-ei interes komuneko jarduketa-lerroak identifikatzen laguntzea, eta proiektu estrategikoak jorratzeko lankidetzak-aukerak kanalizatzea.			
Esku-hartze arloa		PLANGINTZA			
Jarduketa-ardatza		PLA-EA3: LANDA GARAPENERAKO ESKUALDEKO PROGRAMAK (LGE).			
Deskribapena					
Ekintza honen barruan, tresna bat egingo da 18 eskualdetako LGEPetan definitutako jarduketa-ildo guztiak jasotzeko eta eskualdeen artean lankidetzan aritzeko aukerak eskain ditzaketen alderdi komunak identifikatzeko.					
Horrez gain, interes komuneko lan-arloak identifikatzeko eta ezartzeko prozedura bat aplikatzea aurreikusten du.					
Egutegia					
2025	2026	2027	2028	2029	2030
X	X	X	X	X	X
Erakunde exekutatzailea		Hazi Fundazioa			
Inplikaturako erakundeak		Landa-garapeneraren arloan eskumenak dituzten Eusko Jaurlaritzako eta Foru Aldundietako zuzendaritzak eta LGEak.			
Betetze-mailaren adierazleak					
Adierazlea				Helburua	
Tresna egitea				Bai	
Prozedura ezartzea				Bai	

PLA-EA3A3 ekintza	LGE Pen zabalpena kudeatzeko eta jarraipena egiteko plataformaren diseinua osatzea, martxan jarri eta kudeatzea.
Esku-hartze arloa	PLANGINTZA

Jarduketa-ardatza	PLA-EA3: LANDA GARAPENERAKO ESKUALDEKO PROGRAMAK (LGEP).				
Deskribapena					
LGEPk prestatzeko, gauzatzeko eta jarraipena egiteko metodologia diseinatu eta onartu ondoren, beharrezkotzat jo da kudeaketarako plataforma bat martxan jartzea. Plataforma honek barne hartuko lituzke aipatutako metodologiaren prozesuak, LGEP bakoitzaren kudeaketa, jarraipena eta ebaluazioa errazteko, eta Euskadi mailako irakurketa orokorrak egin ahal izateko.					
LGEPk egiteko prozesurako laguntza-tresna bat sortu da eta plataforma honen 2. fasea garatzea falta da. Tresna honek zabalpenaren kudeaketa eta urte bakoitzeko jarraipena egiteko aukera emango du, Kudeaketa Planen eta Urteko Memorien bitartez, bai eta dagokien ebaluazioen bitartez ere. Lan horretarako, tresna erabiltzen duten erakundeen parte-hartzea izango da, haiek dituzten beharrentzat erabilgarria eta efizientea dela bermatzeko.					
Egutegia					
2025	2026	2027	2028	2029	2030
X					
Erakunde exekutatzailea		Hazi Fundazioa			
Inplikaturako erakundeak		LGEak			
Betetze-mailaren adierazleak					
Adierazlea				Helburua	
Plataforma operatiboa				Bai	
Plataformaren erabilera-eskuliburua.				Bai	

PLA-EA3A4 ekintza	LGEPak onartzeko beharrezko tramitazio administratiboa kudeatzea eta koordinatzea.
Esku-hartze arloa	PLANGINTZA
Jarduketa-ardatza	PLA-EA3: LANDA GARAPENERAKO ESKUALDEKO PROGRAMAK (LGEP).
Deskribapena	
Euskadiko Landa-Ingurunearen Garapenari buruzko 7/2022 Legearen 10.4 artikularen arabera, LGEPak Eusko Jaurlaritzako landa-garapenaren arloko sail eskuduneko titularren eta inplikaturako herrialdeetako Foru Aldundien organo eskudunen agindu bidez onartuko dira, Euskadiko Nekazaritzako, Elikadurako eta Landa Garapeneko	

Kontseiluari kontsultatu ondoren eta Euskadiko Nekazaritzako, Elikadurako eta Landa Garapeneko Batzordearen aldeko txostena jaso ondoren.

Halaber, tokiko erakundeen eskumenekoak diren gaiei eragiten badiete, erakunde horiek dagozkien LGEPak aplikatzea eta hortik eratorritako proiektuak edo programak gauzatzea onartu beharko dute.

Egutegia					
2025	2026	2027	2028	2029	2030
X	X				
Erakunde exekutatzailea		Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Saila.			
Inplikaturako erakundeak		Landa-garapenaren arloan eskumenak dituzten Foru Aldundietako Sailak. Tokiko erakundeak.			
Betetze-mailaren adierazleak					
Adierazlea				Helburua	
Onartutako LGEPn kopurua				18	

PLA-EA3A5 ekintza	Dagozkion ebaluazioak egiteko prozedura ezartzea eta LGEPen jarraipena egiteko eta eguneratzeko prozesuak aktibatzea.
Esku-hartze arloa	PLANGINTZA
Jarduketa-ardatza	PLA-EA3: LANDA GARAPENERAKO ESKUALDEKO PROGRAMAK (LGEP).
Deskribapena	
Landa-Ingurunearen Garapenari buruzko Legearen 10.5 artikulua ezartzen du LGEP aplikatu eta hiru urtera tarteko ebaluazioa egingo duela Euskadiko administrazioaren erakunde independente batek eta ebaluazio horretatik aldaketak eratorri ahal izango direla. Tarteko mugarri honen helburua da LGEPn behar bezala zabaltzeko beharrezko egokitzapenak egitea, zehazki, honen bitartez: hala badagokio, estrategiaren hasieran LGEPen aukeratutako jarduketa-ardatzak eta -lerroak berrikustea eta eguneratzea, aldi horretako hurrengo hiru urteei aurre egiteko.	

- ezarritako adierazleen eta haien helburuen azterketa egitea.
- hasieran proposatutako gobernantza-eredua berrikustea.

Eguno programazio-aldiaren ibilbide laburrari eta EBren egiturazko funtsen hainbat urterako finantzaketa-esparruen denborei erreparatuz gero, tarteko ebaluazio horrek LGEPk berregokitzeko aukera ematen du, 2028-2034 aldian zehar estrategiak garatzen jarraitu ahal izateko. Kasu horretan, dagokion tarteko ebaluazioa egin beharko litzateke hurrengo aldiaren erdialdean.

Halaber, datorren aldiaren (2028-2034) **amaieran** LGEP bakoitzaren **ebaluazio** bat egitea aurreikusten da, ezarpenarekin lortutako emaitzak aztertze eta LGEP bakoitzak beharrei erantzute eta aldiaren hasieran eskualde bakoitzean identifikatutako potentzialtasunak aprobetxatzeko egin duen ekarpena zein izan den jakiteko.

Horrez gain, azterketa bateratua egingo da Euskadin; alde batetik, ebaluazio indibidualetatik ateratako ondorioetan oinarrituta, eta, bestetik, programek Euskadi osoan izan duten inpaktuaren gaineko ebaluazio orokorrean oinarrituta. Ebaluazio horrek orientazio-funtzioa izango du etorkizuneko programazio-aldia diseinatzeko.

Egutegia					
2025	2026	2027	2028	2029	2030
		X	X		
Erakunde exekutatzailea		Landa-garapenaren arloko eskumenak dituzten Eusko Jaurlaritzako eta Foru Aldundietako zuzendaritzak.			
Inplikaturako erakundeak		Hazi Fundazioa, LGEak			
Betetze-mailaren adierazleak					
Adierazlea				Helburua	
Ebaluaziorako prozedura				Bai	
LGEPen ebaluazioen kopurua				36	
Euskadi mailako ebaluazioen kopurua				1	

7.1.4. LANDA EREMUEN IDENTIFIKAZIOA ETA SAILKAPENA 2027 OSTEAN (PLA-EA4)

Jarduketa-ardatza PLA-EA4	LANDA EREMUEN IDENTIFIKAZIOA ETA SAILKAPENA 2027 OSTEAN
------------------------------	---

Helburu Operatiboa	Landa-eremuen mapa berri bat konfiguratzea eta landa-eremuak identifikatzeko irizpideak eta sailkapena integratzea lurralde-plangintzaren eta estatistikaren arloan.
Esku-hartze arloa	PLANGINTZA
Deskribapena	
Landa-garapenerako politiken eta estrategien ikuspegitik jardun behar den eremuen identifikazioa eta sailkapena 1998az geroztik egin da. Hala ere, karakterizazio horrek bilakaera izan du, denbora honetan zehar agertoki edo mapa berriak planteatzeko aukera eman duten ikaskuntzak eta ikuspegi berriak integratu eta aplikatu direlako. 2022ko ekainean onartutako 7/2022 Legeak hau dio: “EAEko landagunea zonakatzea erabat garrantzitsua da landa-eremuen ezaugarriak eta beharrianak identifikatzeko, geroago definituko diren garapen-eremuei dagokienez”. Horrez gain, ezinbestekoa da ulertzea karakterizazioa ez dela helburua bere horretan, Euskadiko landa-eremuei eragiten dieten politikak eta dirulaguntzen programak diseinatzeko eta aplikatzeko tresna bat baizik. Horregatik, komeni da egungo zonifikazioaren emaitzen azterketa egitea eta hurrengo aldirako (2028-2034) hobekuntzak planteatzea. Horri dagokionez, European, Joint Research Centrek EBko landa-eremu funtzionalak definitzeko proposamen bat egin zuen 2023an. Landa-eremuen funtzionaltasunean oinarritutako ikuspegiak EB mailako landa-eremuen definizio komunik ezari heldu nahi dio, eta politika eraginkorrakoak eta Europako landa-eremuen arteko konparazioak sustatu nahi ditu. Europako ikuspegi horren azterketa, aurreko aldietako Euskadiko landa-eremuaren zonifikazioaren aplikaziotik ateratako ikaskuntza, eta interesgarriak izan daitezkeen lurraldearen antolaketarako beste eredu batzuen azterketa (gurearen moduko lurraldearen idiosinkrasia kontuan hartuta: hiri-eremua eta landa-eremua oso uztartuta daude) dira hurrengo aldirako Euskadiko landa-eremuak identifikatzeko eta sailkatzeko planteamendu berriaren oinarria. Halaber, egungo ereduaren bitartez landa-eremuen bilakaera neurtuz gero, egungo aldian eremu horiek izan duten garapen-mailaren informazio adierazgarria, zein sailkapena behar errealetara egokitzen den jakiteko informazio adierazgarria emango digu, bai adierazleen hautaketaren ikuspegitik, bai sailkapen-kategorien ikuspegitik.	
Ekintzak	
<u>PLA-EA4A1:</u> Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren dirulaguntza-programen bitartez lurralde bakoitzean emandako dirulaguntzak aztertzea urtero.	
<u>PLA-EA4A2:</u>	

Landa-eremuen bilakaeraren azterketa kuantitatiboa eta kualitatiboa egitea, indarrean dagoen karakterizazioaren arabera.					
PLA-EA4A3: Akordioak egitea Lurralde Plangintzako zuzendaritzarekin eta EUSTATEkin, landa-eremuen terminoak, aitortza eta tratamendua adosteko beste plangintza- eta azterketa-arlo batzuetarako.					
PLA-EA4A4: Euskadiko landa-eremuak identifikatzeko eta karakterizatzeko irizpide berriak adostea, hurrengo programazio-aldiari begira.					
PLA-EA4A5: Eratorritako karakterizazioa integratzea Eusko Jaurlaritzako politiketan eta programetan					
Egutegia					
2025	2026	2027	2028	2029	2030
X	X	X	X	X	X
Erakunde arduraduna		Landa Garapenaren eta Europako Politiken zuzendaritza			
Inplikaturako erakundeak		Hazi Fundazioa, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintzaren Zuzendaritza, Elikadurako eta Landa Garapeneko Sailburuordetzaren beste Zuzendaritzak, EUSTAT, LGEak, landa garapen arloan eskumenak dituzten Foru Aldundietako sailak, Unibertsitatea, tokiko eragileak.			

Jarduketa-ardatz honek bost ekintza gauzatzea aurreikusten du

PLA-EA4A1 ekintza	Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren dirulaguntza-programen bitartez lurralde bakoitzean emandako dirulaguntzak aztertzea urtero.
Esku-hartze arloa	PLANGINTZA
Jarduketa-ardatza	PLA-EA4: LANDA EREMUEK IDENTIFIKAZIOA ETA SAILKAPENA 2027 OSTEA
Deskribapena	
Ekintza honen helburu nagusia da Sailburuordetzaren dirulaguntzek lurraldean duten irismenaren, banaketaren eta efektuen ezagutza eguneratua eta xehea lortzea, landa-garapeneko politika publikoen plangintza, lurralde-parekidetasuna eta eraginkortasuna hobetzeko.	
Lurraldearen araberrako azterketari esker, desberdintasunak eta joerak identifikatu daitezke eskualdeen artean, landa-eremuak sailkatzeko tipologiaren artean (ABE, LEG, LHS), eta garapen-arloetarako zaurgarritasun-mailen artean, baliabideen banaketa	

aztertzeko informazio baliotsua eskainiz, Sailaren helburu estrategikoekiko lerrokatze-maila ebaluatu eta esku hartzeko etorkizuneko erabakiak hobeto orientatu.

Jarduketa honen helburua da lurralde-ikuspegia indartzea dirulaguntzak kudeatzeko garaian, gardentasuna hobetzea funts publikoak erabiltzeko garaian, eta sailari erabaki informatuak hartzeko eta bere garapen-estrategien jarraipena egiteko analisi-tresna erabilgarriak ematea.

Egutegia					
2025	2026	2027	2028	2029	2030
X	X	X	X	X	X
Erakunde exekutatzailea		Landa Garapenaren eta Europako Politiken zuzendaritza			
Inplikaturako erakundeak		Elikaduraren eta Landa Garapenaren Sailburuordetzaren beste Zuzendaritzak eta Hazi Fundazioa.			
Betetze-mailaren adierazleak					
Adierazlea				Helburua	
Egindako txostenak				6	

PLA-EA4A2 ekintza	Landa-eremuen bilakaeraren azterketa kuantitatiboa eta kualitatiboa egitea, indarrean dagoen karakterizazioaren arabera.
Esku-hartze arloa	PLANGINTZA
Jarduketa-ardatza	PLA-EA4: LANDA EREMUEN IDENTIFIKAZIOA ETA SAILKAPENA 2027 OSTEAN
Deskribapena	
Aldi honetarako landa-eremuen karakterizaziorako erabilitako adierazleen arabera aztertuko da horien bilakaera eta kontuan hartuko dira, alde batetik, udalerri-mailako sailkapen motak, arreta bereziko eremuei (ABE) erreparatuz batik bat; eta, bestetik, entitateak, zaurgarritasunaren ikuspegitik. Halaber, LuGPk jarraipen-adierazle eta karakterizazio batzuk jasotzen ditu eta horien bilakaera ere gehituko da azterketa honetan, landa-espazioaren zaintzarekin lotutako horiengan arreta berezia jarritz. Hala, ikuspegi osoagoa lortuko da Landa-Ingurunearen Garapenari buruzko Legearen hiru helburu estrategikoei erantzuteko. Hainbat lurralde-eragilek eta lurralde azterketako erakunde adituek hartuko dute parte berrikuspen horretan, azterketa kuantitatiboak osatzeko ikuspegiarik ahalik eta zabalena lortzeko.	

Egutegia					
2025	2026	2027	2028	2029	2030
		X			
Erakunde exekutatzailea		Hazi Fundazioa			
Inplikaturako erakundeak		EUSTAT, LGEak eta tokiko eragileak, Unibertsitatea			
Betetze-mailaren adierazleak					
Adierazlea				Helburua	
Egindako txostenak				1	

PLA-EA4A3 ekintza	Akordioak egitea Lurralde Plangintzako zuzendaritzarekin eta EUSTATEkin, landa-eremuen terminoak, aitortza eta tratamendua adosteko beste plangintza- eta azterketa-arlo batzuetarako.
Esku-hartze arloa	PLANGINTZA
Jarduketa-ardatza	PLA-EA4: LANDA EREMUEN IDENTIFIKAZIOA ETA SAILKAPENA 2027 OSTEAN
Deskribapena	
7/2022 Legeak nabarmentzen du lurraldearen antolamendurako indarrean dauden tresnekin bat etorriz egin behar dela landa-garapena. Horrez gain, lurraldearen antolamendurako tresnek (LAG, LPP, LPS, HAPO...) landa-espazioa babesteko ekarpena egitea eta Legetik eratorritako plangintza-tresnetan jasotako beharrak eta estrategiak kontuan izatea planteatzen du. Testuinguru horretan, tresna horiek eta, bereziki, tresna horien barruko “landa-habitata” kontzeptua aztertuko da. Halaber, EUSTATEkin, Euskadiko informazio estatistika ofizialaren organo arduradunarekin, lankidetzan aritzea beharrezkoa da edozein plangintza-prozesu egiteko eta emaitzak baloratzeko. Irizpideak baloratu beharko lirateke landa-eremuak aztertzeko kategoria bat definitzeko. Hori guztia dela eta, koordinazioa aktibatuko da Landa Garapenaren, EUSTATen eta Lurralde Plangintzaren artean, landa-eremuak identifikatzeko irizpideak adosteko herrialde-mailan eta horiek erakundeen azterketetan eta plangintzetan integratzeko. Landa-eremuen identifikazioaren gaineko elkargune hori mugarri garrantzitsua da eta Bermerako Landa Mekanismoa (landa lentea edo Rural Proofing) aplikatzeko eta jarraipena egiteko ekarpena egingo du. Ekintza hau gauzatzeko, diziplina arteko lantalde bat osatzea proposatzen da.	

Egutegia					
2025	2026	2027	2028	2029	2030
	X	X			
Erakunde exekutatzailea		Landa Garapenaren eta Europako Politiken Zuzendaritza			
Inplikaturako erakundeak		Hazi Fundazioa, landa garapen arloan eskumenak dituzten Foru Aldundietako zuzendaritzak, Eusko Jaurlaritzaren Lurralde Plangintzako Zuzendaritza eta EUSTAT.			
Betetze-mailaren adierazleak					
Adierazlea				Helburua	
Eratutako lan-taldea				Bai	
Landa-eremuaren terminologiari buruzko iritzi partekatua				Bai	

PLA-EA4A4 ekintza	Euskadiko landa-eremuak identifikatzeko eta karakterizatzeko irizpide berriak adostea, hurrengo programazio-aldiari begira.				
Esku-hartze arloa	PLANGINTZA				
Jarduketa-ardatza	PLA-EA4: LANDA EREMUEN IDENTIFIKAZIOA ETA SAILKAPENA 2027 OSTEAN				
Deskribapena					
2022ko ekainean onartutako 7/2022 Legeak hau dio: “EAEko landagunea zonakatzea erabat garrantzitsua da landa-eremuen ezaugarriak eta beharrianak identifikatzeko, geroago definituko diren garapen-eremuei dagokienez”. Identifikatzeko eta karakterizatzeko irizpide berriak definitu ahal izateko, aurreko aldietan Euskadin aplikatutako landa-eremuen gaineko ikaskuntzak kontuan hartzeaz gain, beste eskualde batzuetan garatzen ari diren ereduen azterketa egitea planteatzen da. Horri dagokionez, EBren landa-eremu funtzionalen definizioaren gainean egindako proposamenaren jarraipen berezia egingo da (Joint Research Centre azterketa). Halaber, lurraldearen zaugarritasun-irizpideak kontuan hartzen dituzten plangintzetan egindako sailkapenen esparruak eta ereduak ere jasoko ditu ikuspegi horrek. Input horiek guztiak aztertzeke garaian kontuan hartuko da gure lurraldearen idiosinkrasia; izan ere, landa-eremua eta hiri-ingurunea uztartuta daude eta hori izango da datorren aldian Euskadiko landa-eremuak identifikatzeko eta sailkatzeko plangintza berria egiteko oinarria.					
Egutegia					
2025	2026	2027	2028	2029	2030

	X	X			
Erakunde exekutatzailea	Hazi Fundazioa				
Inplikaturako erakundeak	Landa Garapenaren eta Europako Politiken Zuzendaritza, landa garapen arloan eskumenak duten Foru Aldundietako zuzendaritzak, LGEak, Eusko Jaurlaritzaren Lurralde Plangintzaren Zuzendaritza, EUSTAT eta Unibertsitatea.				
Betetze-mailaren adierazleak					
Adierazlea				Helburua	
Adierazleen panela				Bai	
Karakterizazio-dokumentua				Bai	

PLA-EA4A5 ekintza		Eratorritako karakterizazioa integratzea Eusko Jaurlaritzako politiketan eta programetan.			
Esku-hartze arloa		PLANGINTZA			
Jarduketa-ardatza		PLA-EA4: LANDA EREMUEN IDENTIFIKAZIOA ETA SAILKAPENA 2027 OSTEAN			
Deskribapena					
Karakterizazioa ez da helburua, Euskadiko landa-eremuei eragiten dieten politikak eta dirulaguntza-programak diseinatzeko eta aplikatzeko tresna baizik, eta, hortaz, karakterizazio hori 2028-2034 aldirako Eusko Jaurlaritzaren sail guztietako politiketan eta programetan integratzea proposatzen da, Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Sailaz harago.					
Egutegia					
2025	2026	2027	2028	2029	2030
		X	X		
Erakunde exekutatzailea		Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Saila.			
Inplikaturako erakundeak		Eusko Jaurlaritzako beste sail batzuk.			
Betetze-mailaren adierazleak					
Adierazlea				Helburua	
Karakterizazioa integratu duten sailaren programen kopurua				8	

7.1.5. PARTAIDETZAKO TOKIKO GARAPENENKO ESTRATEGIA (PTGE) eta 2027 OSTEKO LEADER PROGRAMA (PLA-EA5)

Jarduketa-ardatza PLA-EA5	PARTAIDETZAKO TOKIKO GARAPENENKO ESTRATEGIA (PTGE) eta 2027 OSTEKO LEADER PROGRAMA				
Helburu Operatiboa	Hurrengo aldiari begira , Euskadiko LEADER ikuspegiaren aplikazioa definitzea.				
Esku-hartze arloa	PLANGINTZA				
Deskribapena					
2022-2027 aldirako LEADER ikuspegiaren aplikazioa arautzen duen programazio-aldia eta hari dagozkion plan estrategikoak oraindik indarrean dauden arren, 2027 osteko politikak diseinatzeko gogoetekin eta analisiekin hasi dira.					
Egun, Europako Batzordea Kontseiluarekin eta Parlamentuarekin ari da Hainbat Urtetarako Finantza Esparrua (HUFÉ) 2028-2034 lantzen. Esparru horrek, aurrekontuaz gain, aldi horretarako funtsen arkitektura jasotzen du. NPBk politika independente gisa jarraituko duen ala estatu kide baten balizko funts bateratuan integratuko den jakin bitartean, Landa Garapenerako Politikaren esparruan LEADER non kokatuko den erabakitzea falta da. Aurreikusitako kronogramaren arabera, uztailaren 16an argitaratuko da, bai HUFÉren, bai NPBrén erreformaren proposamena.					
2027 osteko landa-eremuen identifikazioaren eta sailkapenaren kasuan bezala, balizko agertokiak planteatzen hasi beharra dago eta Euskadin 2028-2034 aldian LEADER ikuspegia nola aplikatuko den definitzeko beharrezko urratsak eman behar dira.					
Ekintzak					
PLA-EA5A1: Europar ematen diren negoziazioen eta aurrerapausoen jarraipena egitea.					
PLA-EA5A2: Aldi berrirako (2028-2034) Euskadin LEADER ikuspegia aplikatzeko arau-oinarriak diseinatzea					
PLA-EA5A3: 2028-2034 aldirako Tokiko Ekintza Taldeak aukeratzea					
Egutegia					
2025	2026	2027	2028	2029	2030
	X	X	X		
Erakunde arduraduna	Landa Garapenaren eta Europako Politiken zuzendaritza				
Inplikaturako erakundeak	Hazi Fundazioa				

Jarduketa-ardatz honek hiru ekintza gauzatzea aurreikusten du.

PLA-EA5A1 ekintza	Europar ematen diren negoziazioen eta aurrerapausoen jarraipena egitea.				
Esku-hartze arloa	PLANGINTZA				
Jarduketa-ardatza	PLA-EA5: PARTAIDETZAKO TOKIKO GARAPENEN ESTRATEGIA (PTGE) eta 2027 OSTEO LEADER PROGRAMA				
Deskribapena					
Beharrezkoa da Europako erakundeek NPBrer erreformaren esparruan egindako akordioen jarraipena egitea. Europako Batzordea, Kontseilua, Erkidegoen Batzordea, Parlamentua, ELARDen (Tokiko Ekintza Taldeen Europako Sarea) erreakzioak, LGES (Landa Garapenerako Espainiako Sarea), sindikatuak...					
Zehatz aztertuko dira LEADER barne hartzen duten lege-proposamenak, diseinu berria zehatz-mehatz ezagutzeko eta, hala, Euskadin martxan jartzea planifikatzeko.					
Egutegia					
2025	2026	2027	2028	2029	2030
	X	X	X		
Erakunde exekutatzailerak	Landa Garapeneraren eta Europako Politiken zuzendaritza				
Inplikaturako erakundeak	Hazi Fundazioa				
Betetze-mailaren adierazleak					
Adierazlea				Helburua	
Azterketa-txostenen kopurua				3	

PLA-EA5A2 ekintza	Aldi berrirako (2028-2034) Euskadin LEADER ikuspegia aplikatzeko arau-oinarriak diseinatzea
Esku-hartze arloa	PLANGINTZA
Jarduketa-ardatza	PLA-EA5: PARTAIDETZAKO TOKIKO GARAPENEN ESTRATEGIA (PTGE) eta 2027 OSTEKO LEADER PROGRAMA
Deskribapena	
LEADERen xedapenak barne hartzen dituen Europako araudia onartu ondoren, Eusko Jaurlaritzari dagokio araudi hori Euskadin aplikatzea. LEADER Euskadin aplikatzeko arau-mailarik egokiena (agindua edo dekretua) zehaztuko da. Araudi horrek helburuak, lehentasunak eta esku hartzeko lurralde-eremua hartuko ditu barne, besteak beste.	

Egutegia					
2025	2026	2027	2028	2029	2030
		X	X		
Erakunde exekutatzailea		Landa Garapenaren eta Europako Politiken zuzendaritza			
Inplikaturako erakundeak		Ez da halakorik			
Betetze-mailaren adierazleak					
Adierazlea				Helburua	
LEADER 2028-2034 oinarri arautzaileen araua				Bai	


PLA-EA5A3 ekintza		2028-2034 aldirako Tokiko Ekintza Taldeak aukeratzea			
Esku-hartze arloa		PLANGINTZA			
Jarduketa-ardatza		PLA-EA5: PARTAIDETZAKO TOKIKO GARAPENENKO ESTRATEGIA (PTGE) eta 2027 OSTEKO LEADER PROGRAMA			
Deskribapena					
Partaidetzako Tokiko Garapeneko Estrategiak (PTGE) ezartzeko, etorkizuneko LEADERen gobernantza-eredua ezarriko da, oinarriak diseinatzuz, deialdia argitaratuz eta Tokiko Ekintza Taldeak aukeratuz ondoren.					
Egutegia					
2025	2026	2027	2028	2029	2030
		X	X		
Erakunde exekutatzailea		Landa Garapenaren eta Europako Politiken zuzendaritza			
Inplikaturako erakundeak		Ez da halakorik			
Betetze-mailaren adierazleak					
Adierazlea				Helburua	
Tokiko Ekintza Taldeak aukeratzeko deialdia argitaratuta				Bai	
Tokiko Ekintza Taldeak aukeratu dira				Bai	

7.2. GOBERNANTZA

Gobernantza lau jarduketa-ardatzen gainean egituratzen da. Ardatz horiek dira Nekazaritzako, Elikadurako eta Landa Garapeneko Politikaren Legean aipatzen diren organo elkargokideak, Landa Garapeneko Elkartek (LGE), HAZI-LURRALDE eta Landa Garapeneko

Euskal Sarea (LGES). Guztira bederatzi ekintza identifikatu dira planteatutako helburuak betetzeko.

Gobernantza-sailaren esparru orokorra



Jarduketa-ardatz bakoitzaren fitxarekin batera aurkeztuko da definitutako ekintza bakoitzari dagokion fitxa.

7.2.1. NEKAZARITZAREN, ELIKAGAIEN ETA LANDA GARAPENAREN POLITIKAREN LEGEAN AIPATZEN DIREN KIDE ANITZEKO ORGANOAK (GOB-EA6)

Jarduketa-ardatza GOB-EA6	NEKAZARITZAREN, ELIKAGAIEN ETA LANDA GARAPENAREN POLITIKAREN LEGEAN AIPATZEN DIREN KIDE ANITZEKO ORGANOAK
Helburu Operatiboa	Nekazaritza, Elikadura eta Landa Garapen Politikako Batzordean eta Euskadiko Nekazaritzako, Elikadurako eta Landa Garapeneko Kontseiluan integratzea atribuzio berriak .
Esku-hartze arloa	GOBERNANTZA
Deskribapena	
Nekazaritzako eta Elikadurako Politikari buruzko 2008ko abenduaren 23ko 17/2008 Legeak kide anitzeko organoak aitortzen ditu Euskadiko Nekazaritzako, Elikadurako eta Landa Garapeneko Kontseilua, eta Nekazaritza, Elikadura eta Landa Garapen Politikako Batzordea. Landa-Ingurunearen Garapenari buruzko 7/2022 Legearen lehen xedapen gehigarriaren bidez eguneratu dira organo bakoitzeko helburuak eta kideak, eta landa-garapenarekin lotutako funtzio berriak esleitu dira. Lege horrek ezinbesteko rola ematen dio Nekazaritza, Elikadura eta Landa Garapen Politikako Batzordeari, gobernantzaren koherentzia, eraginkortasuna eta koordinazioa bermatzeko plano instituzionalean. Hala, Batzordeak jorratu beharreko gaiak landa-garapenaren arloarekin lotuta baldin badaude eta tokiko erakundeen eskumenekoak baldin badira, Eudeleko hiru ordezkari integratuko dira bertan, Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde historiko bakoitzeko bana, eta Arabako Kontzejuen Elkarteko (ACOA-AKE) ordezkari bat. Halaber, batzorde barruko erakundeetako sailetako ordezkariak ere parte har dezakete, jorratzen diren gaien eta politika sektorialen arabera. Batzorde horrek funtsezko rola izango du lehen aipatutako plangintza-tresnen (LuGP eta LGEP) aldeko txostenak egiteko garaian eta bermerako landa-mekanismoarekin (landako lentea) lotutako txostenak onartzeko garaian.	
Ekintzak	
<u>GOB-EA6A1:</u> Eguneratzea 44/2012 DEKRETUA, martxoaren 27koa, Euskadiko Nekazaritza eta Elikagaigintzako Kontseiluaren eta Nekazaritza eta Elikadura Politikako Batzordearen eginkizunak eta barne-araubidea zehazten dituenak.	
<u>GOB-EA6A2:</u>	

Landa-Ingurunearen Garapenari buruzko 7/2022 Legeak Nekazaritza, Elikadura eta Landa Garapen Politikako Batzordeari ematen dizkion funtzioekin laguntzeko Idazkaritza Teknikoa eratzea.					
Egutegia					
2025	2026	2027	2028	2029	2030
X	X				
Erakunde arduraduna	Eusko Jaurlaritzako Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Saila.				
Inplikaturako erakundeak	Nekazaritzaren, elikaduraren eta landa-garapenaren arloan eskumenak dituzten Foru Aldundietako Sailak. Hazi Fundazioa				

Jarduketa-ardatz honek bi ekintza gauzatzea aurreikusten du

GOB-EA6A1 ekintza	Eguneratzea 44/2012 DEKRETUA, martxoaren 27koa, Euskadiko Nekazaritza eta Elikagaigintzako Kontseiluaren eta Nekazaritza eta Elikadura Politikako Batzordearen eginkizunak eta barne-araubidea zehazten dituen.				
Esku-hartze arloa	GOBERNANTZA				
Jarduketa-ardatza	GOB-EA6: NEKAZARITZAREN, ELIKAGAIEN ETA LANDA GARAPENAREN POLITIKAREN LEGEAN AIPATZEN DIREN KIDE ANITZEKO ORGANOAK				
Deskribapena					
2012ko martxoaren 27ko 44/2012 dekretuak jasotzen ditu 17/2008 Legean definitutako bi kide anitzeko organoen funtzioak eta funtzionamendu-erregimena: Nekazaritzako eta Elikadurako Kontseilua eta Nekazaritza eta Elikadura Politika Batzordea. Bi organo horien helburuak eta kideak eguneratu egin dira Landa Garapenerako 7/2022 Legearen lehen xedapen gehigarriaren bitartez, eta Batzordearen eta Kontseiluaren funtzionamenduaren funtzioak eta barne-erregimena arau bidez zehaztea falta da. Hortaz, arau-esparrua egungo testuingurura egokitzeko dagokion araua (44/2012 dekretua) berrikusi behar da.					
Egutegia					
2025	2026	2027	2028	2029	2030
X					
Erakunde exekutatzailea		Eusko Jaurlaritzako Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Saila.			

Inplikaturako erakundeak	Nekazaritzaren, elikaduraren eta landa-garapeneraren arloan eskumenak dituzten Foru Aldundietako Sailak. Inplikaturako beste eragile batzuk.	
Betetze-mailaren adierazleak		
Adierazlea		Helburua
44/2012 dekretua eguneratua		Bai

GOB-EA6A2 ekintza	Landa-Ingurunearen Garapenari buruzko 7/2022 Legeak Nekazaritza, Elikadura eta Landa Garapen Politikako Batzordeari ematen dizkion funtzioekin laguntzeko Idazkaritza Teknikoa eratzea				
Esku-hartze arloa	GOVERNANTZA				
Jarduketa-ardatza	GOB-EA6: NEKAZARITZAREN, ELIKAGAIEN ETA LANDA GARAPENAREN POLITIKAREN LEGEAN AIPATZEN DIREN KIDE ANITZEKO ORGANOAK				
Deskribapena					
17/2008 Legearen 93. artikuluan 6. puntuak hau jasotzen du: “Batzordeak Idazkaritza Tekniko bat izango du, artikulu honetako 1. atalean ageri diren Eusko Jaurlaritzako eta Foru Aldundietako sailtako teknikariek eratu, legeak esleitzen dizkion funtzioetan laguntzeko”.					
Idazkaritza Teknikoaren funtzioa da Batzordeei laguntzea legeak esleitzen dizkien funtzio horietan: Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritzako eta elikadurako politikak diseinatzea, nekazaritzako eta elikadurako arloan jarduteko planak eta programak proposatzea, landa-garapenerako politikak sustatzea eta baliozkotzea eta kontuan hartzen diren intereseko gaien gainean eztabaidatzea.					
Egutegia					
2025	2026	2027	2028	2029	2030
X					
Erakunde exekutatzailea	Eusko Jaurlaritzako Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Saila.				
Inplikaturako erakundeak	Nekazaritzaren, elikaduraren eta landa-garapenaren arloan eskumenak dituzten Foru Aldundietako Sailak. Hazi Fundazioa				
Betetze-mailaren adierazleak					
Adierazlea				Helburua	
Idazkaritza teknikoa eratuta				Bai	

Barne-funtzionamendurako prozedura definituta	Bai
---	-----

7.2.2. LANDA GARAPENeko ELKARTEAK (GOB-EA7)

Jarduketa-ardatza GOB-EA7	LANDA GARAPENeko ELKARTEAK (LGEak)				
Helburu Operatiboa	LGEEn, Eusko Jaurlaritzaren eta Foru Aldundien artean harreman-esparrua ezartzea.				
Esku-hartze arloa	GOBERNANTZA				
Deskribapena					
Landa Garapeneko Elkartek (LGE), borondatez eta Lurralde zerbitzuarekin (Hazi Fundazioa) koordinatuta, Administrazio publikoaren erakunde laguntzaile gisa aitortuko dira.					
Harreman hori hainbat urterako lankidetzaz-hitzarmenaren bidez gauzatuko da, landa garapen elkarte bakoitzaren, landa-garapenaren arloko Eusko Jaurlaritzako sail eskudunaren eta landa garapen elkartearen jarduketa-arloa kokatuta dagoen lurralde historikoko Foru Aldundiaren dagokion sailaren artean.					
Lankidetzaz-hitzarmen horren helburu nagusia egungo tokiko gobernantza-eredua indartzea izango da eta, hala, landa garapen elkarteek funtzionamendu integratu eta efizientea izango dute, gobernantza instituzionalaren ikuspegiarekin. Horrez gain, antolaketarekin, finantzaketarekin eta kudeaketarekin lotutako alderdiak arautuko dira, hitzarmenean aurreikusten diren funtzioak eta jarduketak behar bezala gauzatzeko.					
Ekintzak					
GOB-EA7A1:					
Eusko Jaurlaritzak eta Foru Aldundiek LGEkin egindako hitzarmenen irismena eta edukia adostea, horien jarraipena egiteko eta ebaluatzeko prozedura bat ezartzea eta aktibatzea.					
GOB-EA7A2:					
Landa Garapen Elkarten erregimen espezifikari buruzko 158/2002 dekretua eguneratzea.					
Egutegia					
2025	2026	2027	2028	2029	2030
X	X	X	X	X	X
Erakunde arduraduna	Landa Garapenaren eta Europako Politiken Zuzendaritza				
Inplikaturako erakundeak	Landa-garapenaren arloan eskumenak dituzten Foru Aldundiko zuzendaritzak				

Jarduketa-ardatz honek bi ekintza gauzatzea aurreikusten du

GOB-EA7A1 ekintza	Eusko Jaurlaritzak eta Foru Aldundiek LGEkin egindako hitzarmenen irismena eta edukia adostea, horien jarraipena egiteko eta ebaluatzeko prozedura bat ezartzea eta aktibatzea.				
Esku-hartze arloa	GOVERNANTZA				
Jarduketa-ardatza	GOB-EA7: LANDA GARAPENeko ELKARTEAK (LGE)				
Deskribapena					
Landa-Ingurunearen Garapenari buruzko 7/2022 Legea indarrean sartu izanak LGE-en eta landa-garapenean inplikaturako erakunde publikoen lankidetzaz-esparrua eguneratzea eskatzen du. Orain arte indarrean egon diren hitzarmenetatik eta/edo arau-esparruetatik abiatuta, berrikusi egingo dira eta egungo antolaketa-testuinguruaren eskakizunetara eta indarrean dagoen araudira egokitu. Hitzarmen horien barruan integratuta egongo da inplikaturako eragile guztien zerrenda, LGE eta Hazi Fundazioaren arteko harremanak barne. Aldi horretan zehar, hitzarmenen jarraipena eta ebaluazioa egingo da, hitzarmen horiek adostutakoaren arabera gauzatzen ari diren egiaztatze eta proposaturako helburuak lortzen ari diren aztertze. Horretarako, jarraipen- eta ebaluazio-prozedura bat diseinatuko da eta barne hartuko ditu, besteak beste, datuak biltzeko mekanismoak, adierazleen definizioa, txostenen prestaketa, erabakiak hartzea eta inplikaturako eragileak. Hitzarmena beharren eta testuinguruaren arabera eguneratu daiteke.					
Egutegia					
2025	2026	2027	2028	2029	2030
X	X	X	X	X	X
Erakunde exekutatzailea		Landa Garapenaren eta Europar Politiken Zuzendaritza.			
Inplikaturako erakundeak		Landa garapen arloan eskumenak dituzten Foru Aldundien zuzendaritzak.			
Betetze-mailaren adierazleak					
Adierazlea				Helburua	
Sinatutako hitzarmenen kopurua				18	
2026an aktibatutako hitzarmenak				Bai	
Jarraipen- eta ebaluazio-prozedura egitea				Bai	
Urteko jarraipen-txostenen kopurua				18	

GOB-EA7A2 ekintza		Landa garapen elkartearen erregimen espezifikoari buruzko 158/2002 dekretua eguneratzea.			
Esku-hartze arloa		GOVERNANTZA			
Jarduketa-ardatza		GOB-EA7: LANDA GARAPENENKO ELKARTEAK (LGE)			
Deskribapena					
Ekainaren 25eko 158/2002 Dekretuaren xedea da landa garapeneko elkarteak aitortzeko baldintzak ezartzea, bai eta elkarte horiek Landa Garapeneko Programetan bildutako jardueretan parte hartzeko eta lankidetzan aritzeko modua ezartzea ere, Landa Garapeneko apirilaren 8ko 10/1998 Legean ezarritakoaren esparruan eta bertan ezarritakoaren ondorioetarako. Landa-Ingurunearen Garapenari buruzko 7/2022 Legea indarrean sartzean, aurreko xedapena baliorik gabe geratu zen eta, ondorioz, 158/2002 dekretua eguneratu egin behar izan zen, arau-esparrua berrikusiz eta birdefinituz, Lege berrian ezarritakora egokitzeko.					
Egutegia					
2025	2026	2027	2028	2029	2030
X	X				
Erakunde exekutatzailea		Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Saila.			
Inplikaturako erakundeak		Ez dagokio.			
Betetze-mailaren adierazleak					
Adierazlea				Helburua	
Dekretu berria onartzea eta argitaratzea				Bai	

7.2.3. HAZI-LURRALDE (GOB-EA8)

Jarduketa-ardatza GOB-EA8	HAZI-LURRALDE
Helburu Operatiboa	Landa-Ingurunearen Garapenari buruzko 7/2022 Legeak Lurralderi esleitzen dion rola eta funtzioak Hazi Fundazioan integratzea.
Esku-hartze arloa	GOVERNANTZA
Deskribapena	
Gobernantzarekin lotuta Landa-Ingurunearen Garapenari buruzko 7/2022 Legeak aitortzen duenaren arabera, gobernantza publiko-pribatua, tokiko mailan, Hazi Fundazioak koordinatuko du; horretarako, erakunde horretan lurralde-garapena xede	

izango duen kudeaketa-zerbitzu berria sortuko da, Lurralde izeneko. Horrez gain, Lurralde eta landa garapen elkarten arteko koordinazioa planteatzen da, landa-garapenaren arloko jarduketan koherentzia indartzeko gobernantza instituzionalaren ikuspegiarekin.					
Ekintzak					
GOB-EA8A1: Lurraldek Hazi Fundazioan duen engranajea eta LGEekin koordinatzeko eta dinamizatzeko eredua definitzea.					
Egutegia					
2025	2026	2027	2028	2029	2030
X	X				
Erakunde arduraduna		HAZI Fundazioa			
Inplikaturako erakundeak		Landa Garapenaren eta Europako Politiken Zuzendaritza eta landa-garapenaren arloan eskumenak dituzten Foru Aldundietako Zuzendaritzak. Landa garapeneko elkarteak			

Jarduketa-ardatz honek ekintza bat gauzatzea aurreikusten du

GOB-EA8A1 ekintza	Lurraldek Hazi Fundazioan duen engranajea eta LGEekin koordinatzeko eta dinamizatzeko eredua definitzea.
Esku-hartze arloa	GOVERNANTZA
Jarduketa-ardatza	GOB-EA8: HAZI-LURRALDE
Deskribapena	
Landa Garapenerako Legearen 14 eta 15. artikuluek Hazi Fundazioa, Lurraldearen kudeaketa-zerbitzuari esleitzen dizkioten funtzioen arabera, Hazi Fundazioaren ikuspegiak, prozedurak eta barne-harremanetarako kanalak egokitu egin behar dira Landa-Ingurunearen Garapenari buruzko Lege horren hedapenetik sortzen diren beharrei modu efizienteagoan erantzuteko. Ekintza horren kudeaketa optimoa egiteko, Landa Garapenaren eta Europako Politiken zuzendaritzaren eta Hazi Fundazioaren arteko koordinazioa indartzea aurreikusten da. Halaber, testuinguru honetan, beharrezkoa da LGE-ekin (administrazio publikoaren eragile kolaboratzaileak) koordinazio-lanak egiteko lan-eredua ezartzea, landa garapen elkarte bakoitzaren, landa-garapenaren arloan eskumenak dituen Eusko Jaurlaritzako sailaren eta landa-garapenerako elkarte bakoitzaren jarduketa-arloari dagokion lurralde historikoko Foru Aldundiaren sail eskudunaren arteko etorkizuneko lankidetzahitzarmenen edukietatik harago.	

Egutegia					
2025	2026	2027	2028	2029	2030
X	X				
Erakunde exekutatzailea		HAZI Fundazioa			
Inplikaturako erakundeak		Landa Garapenaren eta Europako Politiken Zuzendaritza eta landa-garapenaren arloan eskumenak dituzten Foru Aldundietako Zuzendaritzak. Landa garapeneko elkarteak			
Betetze-mailaren adierazleak					
Adierazlea				Helburua	
HAZI Fundazioaren estrategia berrian integratutako Lurralderen kudeaketa-zerbitzuaren funtzioak.				Bai	
Landa Garapenaren eta Europako Politiken zuzendaritzarekin koordinatzeko eta jarraipena egiteko sistema aktibatuta				Bai	
LGE-ekin koordinatzeko arloak eta foroak ezarrita.				Bai	

7.2.4. LANDA GARAPENERAKO EUSKAL SAREA (GOB-EA9)

Jarduketa-ardatza GOB-EA9	LANDA GARAPENERAKO EUSKAL SAREA (LGES)
Helburu Operatiboa	Landa Garapenerako Euskal Sarea (LGES) aktibatzea eta dinamizatzea .
Esku-hartze arloa	GOBERNANTZA
Deskribapena	
Lurralde-kohesioaren ikuspegiaren pean, Landa-Ingurunearen Garapenari buruzko 7/2022 Legeak plangintzarako eta gobernantzarako tresna berriak gehitu ditu, eta landa-garapenerako politikarentzako elementu garrantzitsuak bihurtu dira, landa-garapenerako egin beharreko jarduketak tresna horien gainean egituratzen baitira. Tokiko gobernantza publiko-pribatuaren barruan, Landa Garapeneko Euskal Sarea sortu da 16. artikulua bitartez. EAEko Administrazio Orokorreko landa-garapenaren arloko sailari atxikita dago eta landa-garapenean inplikaturik dauden erakundeak eta eragileak	

lotzea, koordinatzea eta lankidetzan jartzea du xede. Halaber, artikulua horrek ezartzen du arau bidez garatuko direla bere egitura, konposizioa eta funtzioak. Horretarako, dekretu bat egin da eta, bertan, kontsultarako, informazioa emateko eta aholkularitzarako organo elkargokide plural gisa eratu da.					
Ekintzak					
<u>GOB-EA9A1:</u> LGEPAk eratzeko tramitazio administratiboa kudeatzea.					
<u>GOB-EA9A2:</u> LGEparen Idazkaritza Teknikoa eratzea eta aktibatzea.					
<u>GOB-EA9A3</u> LGEPA dinamizatzeko bide-erria diseinatzea eta exekutatzeko.					
<u>GOB-EA9A4</u> Euskadiko Landa Behatokia sortzea eta dinamizatzea					
Egutegia					
2025	2026	2027	2028	2029	2030
X	X	X	X	X	X
Erakunde arduraduna		Landa Garapenaren eta Europar Politiken Zuzendaritza.			
Inplikaturako erakundeak		Hazi Fundazioa			

Jarduketa-ardatz honek lau ekintza gauzatzea aurreikusten du

GOB-EA9A1 ekintza		LGEPAk eratzeko tramitazio administratiboa kudeatzea.			
Esku-hartze arloa		GOVERNANTZA			
Jarduketa-ardatza		GOB-EA9: LANDA GARAPENERAKO EUSKAL SAREA (LGES)			
Deskribapena					
Landa-Ingurunearen Garapenari buruzko 7/2022 Legearen 16.4 artikulua bere egituraren, konposizioaren eta funtzioen arau bidezko garapena agintzen du. Lege honetan ezarritako lege-agindua betetze aldera, sarea arautuko duen Dekretuaren zirriborroa diseinatu eta gero, bere legezko tramitazioa jorratu behar da.					
Egutegia					
2025	2026	2027	2028	2029	2030
X					
Erakunde exekutatzailerak		Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Saila.			
Inplikaturako erakundeak		Ez dagokio.			
Betetze-mailaren adierazleak					

Adierazlea	Helburua
LGEParen dekretu arautzailearen tramitazioa amaituta	Bai

GOB-EA9A2 ekintza	LGEParen Idazkaritza Teknikoa eratzea eta aktibatzea.				
Esku-hartze arloa	GOBERNANTZA				
Jarduketa-ardatza	GOB-EA9: LANDA GARAPENERAKO EUSKAL SAREA (LGES)				
Deskribapena					
Landa Garapenerako Euskal Sarearen (LGES) egitura, konposizioa eta funtzioak ezartzen dituen Dekretuaren zirriborroaren 15. artikuluan ezartzen da LGESren funtzionamendua kudeatzeaz arduratuko den Idazkaritza Teknikoa Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko landa-garapenaren arloko zuzendaritza eskuduneko teknikariek zuzenduko dutela eta HAZI-Lurralderen zerbitzuaren laguntza izango dutela. Artikulu horrek berak LGESren funtzionamendu egokirako funtsezko funtzio batzuk esleitzen dizkio, batzuk instituzionalak eta administratiboak, eta beste batzuk antolaketa-lanekin eta dinamizazioarekin lotutakoak. Hori guztia dela eta, Idazkaritza Teknikoa eratzea eta aktibatzea da etorkizunean sare hori finkatzeko aurreikusten den lehen ekintzetako bat.					
Egutegia					
2025	2026	2027	2028	2029	2030
X					
Erakunde exekutatzailea		Landa Garapenaren eta Europar Politiken Zuzendaritza.			
Inplikaturako erakundeak		Hazi Fundazioa			
Betetze-mailaren adierazleak					
Adierazlea				Helburua	
LGEPren Idazkaritza Teknikoa eratzea eta aktibatzea.				Bai	
Idazkaritza Teknikoaren bileren kopurua				1	

GOB-EA9A3 ekintza	LGEP dinamizatzeko bide-orria diseinatzea eta exekutatzea.
Esku-hartze arloa	GOBERNANTZA
Jarduketa-ardatza	GOB-EA9: LANDA GARAPENERAKO EUSKAL SAREA (LGES)

Deskribapena					
Ekintza-plan bat diseinatuko da plangintza-tresna nagusi gisa hiru urteko denbora-mugarekin, eta epe laburreko helburuak, helburu horiek lortzeko aurreikusten diren ekintzak eta urteko xedeak jasoko ditu. Araudi arautzaileak dagoeneko ezarritako mugarri batzuk badaude, eta horiek bete eta ekintza planean gehitu beharko dira. Mugarri horiei egindako gogoeta-dinamiketatik eta partekatutako arrakasta-kasuetatik ateratako gomendioak gehitu beharko zaizkie, eta diseinuarentzako inputa izango dira.					
Egutegia					
2025	2026	2027	2028	2029	2030
X	X	X	X	X	X
Erakunde exekutatzailea		Landa Garapenerako Euskal Sarea (LGES)			
Inplikaturako erakundeak		Hazi Fundazioa			
Betetze-mailaren adierazleak					
Adierazlea				Helburua	
Bide-orria diseinatzea				Bai	
Lehen osoko bilkura eratzea, Dekretua indarrean sartu eta lehen sei hilabetetan.				Bai	
Bide-orria ebaluazioaren arabera egokitzea.				Bai	


GOB-EA9A4 ekintza		Euskadiko Landa Behatokia sortzea eta dinamizatzea			
Esku-hartze arloa		GOBERNANTZA			
Jarduketa-ardatza		GOB-EA9: LANDA GARAPENERAKO EUSKAL SAREA (LGES)			
Deskribapena					
Euskadin Landa Behatoki bat diseinatzea, martxan jartzea eta dinamizatzea aurreikusten da, EBk sustatutako Landa Behatokiaren ereduari inspiratuta, Euskadiko landa-eremuen egoera sozialari, ekonomikoari eta ingurumenekoari buruzko datuak partekatzeko eta landa-eremu horien eta landa-garapenerako politikaren barruan sustatutako jarduketan eraginkortasuna ebaluatzeko eta jarraipena egiteko. Halaber, eremu horien etorkizunarekin lotutako erabakiak hartu ahal izateko jardunbide egokiak, joerak eta prospektiba-elementuak biltzen dituen tresna izango da.					
Egutegia					
2025	2026	2027	2028	2029	2030
	X	X	X	X	X
Erakunde exekutatzailea		Landa Garapenerako Euskal Sarea (LGES).			

Inplikaturako erakundeak	Hazi Fundazioa
Betetze-mailaren adierazleak	
Adierazlea	Helburua
Euskadiko Landa Behatokia martxan jartzea	Bai

7.3. DINAMIZAZIOA

Dinamizazioa hiru jarduketa-ardatzen gainean egituratzen da: Landa-eremuen bizi-kalitatea eraldatzeko proiektu estrategikoak sustatzea eta zuzentzea; landa-eremuetako jarduera ekonomikoaren ekintzailtza eta dibertsifikazioa sustatzea, eta Euskadiko landa-espazioa sustatzea eta zaintzea.

Dinamizazio-arloaren esparru orokorra.



7.3.1. BIZI KALITATEARI DAGOKIONEZ LANDA EREMUAK ERALDATZEKO PROIEKTU ESTRATEGIKOAK SUSTATZEA ETA ZUZENTZEA (DIN-EA10)

Jarduketa-ardatza DIN-EA10	BIZI KALITATEARI DAGOKIONEZ LANDA EREMUAK ERALDATZEKO PROIEKTU ESTRATEGIKOAK SUSTATZEA ETA ZUZENTZEA				
Helburu Operatiboa	Landa-espazioa dinamizatzea, proiektu estrategikoen bitartez landa eremua eraldatzeko bizi-kalitatea eta ongizatearen arloan				
Esku-hartze arloa	DINAMIZAZIOA				
Deskribapena					
Hau da Landa-Ingurunearen Garapenari buruzko 7/2022 Legearen helburuetako bat: “EAEko landa-biztanleen ongizate-maila hiri-biztanleen ongizate-mailarekiko parekatzea, bai eta landa-ingurunearen despopulatzeari eta zahartzeari buelta ematea ere, funtsezko faktorea baita Euskadiko gizartearen eta lurraldearen kohesiorako”. Halaber, arlo sektorial batean zeharkako proiektuak, proiektu espezifikoak edo espezializazio-proiektuak, bai barne mailakoak, bai Europa edo nazioarteko mailakoak, sustatzeko eta kudeatzeko zeregina esleitzen dio HAZI-Lurralderi. Testuinguru honetan, landa eremuko herritarren ongizateari lagunduko dioten proiektu espezifikoak identifikatzea eta sustatzea proposatzen du, beste sail eta erakunde batzuekin lankidetzan. Jarduketa-ardatz honetan kontuan izango da LGE-ekin izandako lankidetzak, tokiko, eskualdeko eta eskualdez gaindiko ekimenak sustatzeko eragile garrantzitsuak baitira.					
Ekintzak					
<u>DIN-EA10A1:</u> LuGPren arabera lehenetsitako arloei eta LGEP estrategiei erantzun diezaieketen lankidetzak-proiektuak aktibatzea.					
<u>DIN-EA10A2:</u> Lan-ildo bat zabaltzea Smart ikuspegiaren arloan: Smart Villages estrategiak eta Smart proiektuak.					
<u>DIN-EA10A3:</u> BEROSI ekimenaren barruan lan-ildo bat garatzea, landa-eremuko herritarren bizitza-kalitatea hobetzeko proiektuak sustatzeko.					
Egutegia					
2025	2026	2027	2028	2029	2030
X	X	X	X	X	X
Erakunde arduraduna	Landa Garapenaren eta Europako Politiken zuzendaritza				
Inplikaturako erakundeak	Hazi Fundazioa, Eusko Jaurlaritzako beste sail batzuk, Foru Aldundiak, LGEak, tokiko eragileak, Eudel, ACOA				

Jarduketa-ardatz honek hiru ekintza gauzatzea aurreikusten du

DIN-EA10A1 ekintza	LuGPren arabera lehenetsitako arloei eta LGEP estrategiei erantzun diezaieketen lankidetzako proiektuak aktibatzea.				
Esku-hartze arloa	DINAMIZAZIOA				
Jarduketa-ardatza	DIN-EA10: BIZITZA KALITATEARI DAGOKIONEZ, LANDA EREMUAK ERALDATZEKO PROIEKTU ESTRATEGIKOAK SUSTATZEA ETA ZUZENTZEA				
Deskribapena					
Landa-Ingurunearen Garapenari buruzko 7/2022 Legearekin bat etorritik eta Lurralde Garapenerako Programan (LuGP) zein Landa Garapenerako Eskualdeko Programan (LGEP) estrategietan ezarritako lehentasunak aintzat hartuz, proiektuak garatzeko arloen lehenengo identifikazioa bat egin da: gazteria, etxebizitza, mugikortasuna, arreta soziosanitarioa, parte-hartzea eta arreta komunitarioa. Asmoa da proiektuak garatzea beste sailekin, erakundeekin eta tokiko eragileekin lankidetzan, talde bateratuak eta diziplina anitzekoak eratuz, proiektuak diseinatzeko, garatzeko, jarraipena egiteko eta ebaluatzen. Hasieran, proiektu bakoitzeko lanaren funtsezko oinarriak adostuko dira sailen artean, hala nola lantaldearen eraketa, proiektuaren lidergoa, finantzaketa eta gauzatzeko epeak.					
Egutegia					
2025	2026	2027	2028	2029	2030
	X	X	X	X	X
Erakunde exekutatzailerak	Landa Garapenaren eta Europar Politiken Zuzendaritza.				
Inplikaturako erakundeak	Hazi Fundazioa, Eusko Jaurlaritzako beste sail batzuk, Foru Aldundiak, LGEak, tokiko eragileak.				
Betetze-mailaren adierazleak					
Adierazlea				Helburua	
Garatutako proiektuen kopurua				5	

DIN-EA10A2 ekintza	Lan-ildo bat zabaltzea Smart ikuspegiaren arloan: Smart Villages estrategiak eta Smart proiektuak.				
Esku-hartze arloa	DINAMIZAZIOA				
Jarduketa-ardatza	DIN-EA10: BIZITZA KALITATEARI DAGOKIONEZ, LANDA EREMUAK ERALDATZEKO PROIEKTU ESTRATEGIKOAK SUSTATZEA ETA ZUZENTZEA				

Deskribapena					
Herri adimendunak edo Smart Villages-ak landa-eremuetako komunitateak dira eta soluzio berritzaileak erabiltzen dituzte erresilientzia handitzeko, tokiko indarguneak eta aukerak baliatuz. Estrategia egiteko eta aplikatzeko planteamendu parte-hartzailean oinarritzen dira, baldintza ekonomikoak, sozialak edo ingurumenekoak hobetze aldera, batez ere, teknologia digitalek eskaintzen dituzten soluzioak aprobetxatuz. Smart Villages kontzeptuak bilakaera izan du eta funtsezkoa bihurtu da Europar Batasuneko Landa Eremuentzako Epe Luzerako Ikuspegiaren (LTVRA, 2021-2040) barruan. Estrategia horrek aitortzen du landa-garapena digitalizazioan, dibertsifikazio ekonomikoan eta jasangarritasunean oinarritu behar dela eta gobernantza-eredu bat ezartzen du tokiko eragileak aldaketaren protagonista bihurtzeko. Tokiko mailan, Euskadiko Landa-Ingurunearen Garapenari buruzko 7/2022 Legeak esparru ezin hobia eskaintzen du Smart Villages estrategiak ezartzeko, Europako jarraibideekin bat etorri eta Euskadiko berezitasunak aintzat hartuz. Smart ikuspegia landa-eremuetako plangintza-tresnetan, zein proiektuetan integratzea da ekintza horren xedea. Horretarako kontutan hartuko dira jadanik egindako lana eta ikasitakoa arlo honetan Euskadiko landa eremuan.					
Egutegia					
2025	2026	2027	2028	2029	2030
	X	X	X	X	X
Erakunde exekutatzailea		Landa Garapenaren eta Europako Politiken zuzendaritza			
Inplikaturako erakundeak		Hazi Fundazioa, LGEak.			
Betetze-mailaren adierazleak					
Adierazlea				Helburua	
Lan-plana eginda				Bai	
Smart metodologia egokituta				Bai	
Smart proiektuak eginda				2	

DIN-EA10A3 ekintza	BEROSI ekimenaren barruan lan-ildo bat garatzea, landa-eremuko herritarren bizitza-kalitatea hobetzeko proiektuak sustatzeko.
Esku-hartze arloa	DINAMIZAZIOA

Jarduketa-ardatza	DIN-EA10: BIZITZA KALITATEARI DAGOKIONEZ, LANDA EREMUA ERALDATZEKO PROIEKTU ESTRATEGIKOAK SUSTATZEA ETA ZUZENTZEA				
Deskribapena					
Eusko Jaurlaritzak konpromiso garrantzitsua du landa-eremuen garapenarekin, lurraldearen kohesioa eta oreka lortzeko ezinbesteko elementua baita. Hala diseinatu da BEROSI ekimena. Ekimen honen helburua da landa-eremuen etengabeko biziberritzea aktibatzea, eta, horretarako, herritarren bizi-baldintzak hobetzea arreta soziokulturalaren bitartez. Horrela, landa-eremuetan biztanleria galtzea ekidin daiteke. Horretarako ezinbestekoa da gure lurraldearen zati horri bizi-kalitate duina bermatzeko gutxieneko zerbitzuak eta azpiegiturak eskaintzea eta ezinbesteko zerbitzuetarako sarbidea ahalbidetzea. BEROSI ekimenak hainbat gai motaren gainean jarriko du fokua, hautemandako beharren eta aukeren arabera: banku-zerbitzuak, elikagaien banaketa, tokiko merkataritza, etab. Ekimen honen lehen neurrietako bat izango da kutxazain automatikoak jartzea eta cash-back zerbitzua eskaintzea bazterkeria finantzarioaren arriskuan dauden Euskal Autonomia Erkidegoko landa-udalerrietan eta entitateetan.					
Egutegia					
2025	2026	2027	2028	2029	2030
X	X	X	X	X	X
Erakunde exekutatzailerak		Landa Garapenaren eta Europako Politiken zuzendaritza			
Inplikaturako erakundeak		Hazi Fundazioa, LGEak			
Betetze-mailaren adierazleak					
Adierazlea				Helburua	
Aktibatutako proiektu kop.				10	

7.3.2. LANDA EREMUEKIN EKINTZAILERAK ETA JARDUERA EKONOMIKOAREN DIBERTSIFIKAZIOA SUSTATZEA (DIN-EA11)

Jarduketa-ardatza DIN-EA11	LANDA EREMUEKIN EKINTZAILERAK ETA JARDUERA EKONOMIKOAREN DIBERTSIFIKAZIOA SUSTATZEA
Helburu Operatiboa	Landa-espazioa dinamizatzea jarduera ekonomikoa indartuz, bere beharretara egokituz eta tokiko erronkak eta aukerekin lerrokatuta.

Esku-hartze arloa	DINAMIZAZIOA				
Deskribapena					
Jarduketa-ardatz honen xedea da landa-eremuetan jarduera ekonomikoa dinamizatzea, ekintzailletza sustatzea eta jarduera dibertsifikatzea, lurraldearen ezaugarrietara eta potentzialtasunetara egokitutako estrategia integralaren bitartez. Helburua da landa-eremua dinamizatzea eta ekintzailetzaren kultura indartzea, ekintzaileei eta proiektuei laguntzeko zerbitzuak hobetuz eta handituz, belaunaldien arteko erreleboa eta barne mailako ekintzailletza sustatuz eta landako ekosistemako eragileen arteko lankidetzak bultzatuz. Ardatz honen ekintzen xedea da lurraldean balio erantsia eta inpaktua sortzen duten, biztanleria finkatzen laguntzen duten eta tokiko garapenari ekarpena egiten dioten ekimen ekintzaile bideragarriak eta jasagarriak estimulatzea. Horrez gain, helburua da lurraldearen ekintzailetzaren ikuspegi tradizionala handitzea eta jardunbide egokietan inspiratuta dauden eta tokiko erronkei eta aukerei modu koordinatuan erantzuten dieten etorkizuneko proiektuak babestea. Horretarako, ekintzailletza babesteko programak eta ekintzak modu proaktiboan identifikatzeko, definitzeko, kudeatzeko, garatzeko eta koordinatzeko aktibitateak egingo dira, oraingo eta/edo etorkizuneko proiektuen dinamizazio ekonomikoa eginez hainbat arlo eta forotan, lehen sektoreko eragileekin, nekazaritzako elikagaien industriarekin, landa-eremuarekin eta kostaldearekin eta horiekin lotutako instituzioekin, erakundeekin eta elkarteekin batera. Horren xedea Elikaduraren Balio Katearen eta landa eta Itsas Ingurunearen lehiakortasuna handitzea izango da.					
Ekintzak					
DIN-EA11A1: Lurraldeko biztanleriaren ekintzailletza-kultura sustatzea					
DIN-EA11A2: Landa-eremuko ekintzailletza-zerbitzua indartzea, enpresa-ekimen berriak sortzen lagunduz (negozio berriak, belaunaldien arteko erreleboa, barne-ekintzailletza, etab.), eta dagoeneko lurraldean kokatuta dauden enpresei lagunduz eta indartuz.					
DIN-EA11A3: Ekintzaileen eta ekosistemako eragileen arteko lankidetzak finkatzea; zerbitzu integrala, koordinatua eta ekintzaileen eta beren proiektuen beharretara egokitua eskaintzeko, tokiko erronkekin eta aukerekin bat etorri.					
DIN-EA11A4: Lurraldearen ekintzailetzaren fokua handitzea proiektu berritzaileak babesteko, etorkizuneko ikuspegia dutenak, errelebo-aukerak dituztenak, errepika daitezkeen esperientzietan inspiratutakoak eta tokiko garapenarekin lotutakoak.					
Egutegia					
2025	2026	2027	2028	2029	2030

X	X	X	X	X	X
Erakunde arduraduna	Landa Garapenaren eta Europako Politiken zuzendaritza				
Inplikaturako erakundeak	Hazi Fundazioa LGEak Euskadiko Gestio Zentroak				

Jarduketa-ardatz honek lau ekintza gauzatzea aurreikusten du

Ekintza DIN-EA11A1		Lurraldeko biztanleriaren ekintzailtza-kultura sustatzea			
Esku-hartze arloa		DINAMIZAZIOA			
Jarduketa-ardatza		DIN-EA11: LANDA EREMUETAN EKINTZAILTZA ETA JARDUERA EKONOMIKOAREN DIBERTSIFIKAZIOA SUSTATZEA			
Deskribapena					
Ekintza honen barruan, ekintzaileen, enpresen eta ekintzailtzaren ekosistemako eragileen arteko topaketak sustatzeko jarduketak egingo dira, ekintzailtza estimulatzen. Hala, ekintzailtza-proiektuei garrantzia emango zaie, lurraldearen garapenerako esperientzia inspiratzaile gisa.					
Egutegia					
2025	2026	2027	2028	2029	2030
X	X	X	X	X	X
Erakunde exekutatzailea		Landa Garapenaren eta Europako Politiken zuzendaritza			
Inplikaturako erakundeak		Hazi Fundazioa			
Betetze-mailaren adierazleak					
Adierazlea				Helburua	
Urtean egindako ekimenen kopurua				6	
Urteko parte-hartzaileen kopurua, sexuaren eta udalerriaren arabera bereizita				80	
Urteko prentsako eta sare sozialetako argitalpenen kopurua				12	
Urtero nabarmendutako esperientzia ekintzaileen kopurua				6	

DIN-EA11A2 ekintza	Landa-eremuko ekintzailtza-zerbitzua indartzea, enpresa-ekimen berriak sortzen lagunduz (negozio berriak, belaunaldien arteko erreleboa, barne-ekintzailtza, etab.), eta dagoeneko lurraldean kokatuta dauden enpresei lagunduz eta indartuz.
--------------------	---

Esku-hartze arloa	DINAMIZAZIOA				
Jarduketa-ardatza	EA11: LANDA EREMUETAN EKINTZAILETZA ETA JARDUERA EKONOMIKOAREN DIBERTSIFIKAZIOA SUSTATZEA				
Deskribapena					
Arlo honetan, prozesuak eta baliabideak ebaluatu eta optimizatuko dira, zerbitzu efizientea eta irisgarria eskaintzeko, negozio berriak sortzea sustatzeko, barne-mailako ekintzailatzarako, lurraldean jadanik martxan dauden enpresei laguntzea, eta abar. Horretarako, ekintzaileari erreparatuko zaio eta bere beharrei erantzun beharko zaie. Batia ere eskuragarri dauden zerbitzuen xehetasun argiak eta irisgarriak ematea eta presentzia handitzea lurraldean eta eskaintako programak eta zerbitzuak zabaltzea. Ekintzaileengana iristeko kanalak eta espazioak aktibatzeko lan egingo da, lurraldeak ekintzailatzaren arloan eskaintzen dituen abantailak eta aukerak ikusarazteko. Ekintzailatza-proiektuek lurraldearen garapenean duten inpaktua jakinaraztea eta ikusaraztea (jarduera ekonomikoa sortzea, biztanleria finkatzea, herritarrentzako zerbitzu berriak sortzea...). Ekintzailatza sustatzea KABIaren bidez eta laguntza-programen bidez (Gaztenek, Geroa, etab.) eta saretutako ekintzailatzaren boterea sustatzea, pertsonak eta lurralde-proiektuak ikusarazteko, dinamizatzeko eta aberasteko estrategia gisa.					
Egutegia					
2025	2026	2027	2028	2029	2030
X	X	X	X	X	X
Erakunde exekutatzailea		Landa Garapenaren eta Europako Politiken zuzendaritza			
Inplikaturako erakundeak		Hazi Fundazioa			
		LGEak			
		Euskadiko Gestio Zentroak			
Betetze-mailaren adierazleak					
Adierazlea				Helburua	
Eskaintako zerbitzuen asebetetze-inkestetatik lortutako erantzunen kopurua				% 50	
Katalogoa egitea (digitala)				Bai	
Argitalpenetako eta sare sozialetako presentzia edo agerraldien kopurua.				6	
Eragile ekintzaileak koordinatzeko egindako bileretako parte-hartzaileen kopurua, urtearen eta lurralde historikoaren arabera				3	

Laguntza-programa bakoitzean parte hartzen duten pertsona berrien kopurua (sexuaren eta udalerrriaren arabera bereizita): Kabia, Geroa eta Gaztenek, Lurralde Historikoaren arabera	25
---	----

DIN-EA11A3 ekintza	Ekintzaileen eta ekosistemako eragileen arteko lankidetzak finkatzea; zerbitzu integrala, koordinatua eta ekintzaileen eta beren proiektuen beharretara egokitua eskaintzeko, tokiko erronkekin eta aukerekin bat etorriz.				
Esku-hartze arloa	DINAMIZAZIOA				
Jarduketa-ardatza	EA11: LANDA EREMUETAN EKINTZAILERAK ETA JARDUERA EKONOMIKOAREN DIBERTSIFIKAZIOA SUSTATzea				
Deskribapena					
Honen barruan, ekintzaileekin lan egiten duten eragileen arteko zerbitzuen osagarritasuna hobetzea kontutan hartuko da. Baita ere ekintzailetzaren espektroa handitzea landa-eremuetan; hobi garrantzitsu eta berritzaileak identifikatuz eta horiei garrantzia emanez, aukera berriak ikusaraziz, eta esperientzia globalak eta nazioarteko joerak jaso eta tokiko testuingurura bihurtzeko espazio bat sortuz, betiere, proiektu dibertsifikatuak eta etorkizuneko ikuspegia dutenak inspiratzeko eta sustatzeko.					
Egutegia					
2025	2026	2027	2028	2029	2030
X	X	X	X	X	X
Erakunde exekutatzailea	Landa Garapenaren eta Europako Politiken Zuzendaritza				
Inplikaturako erakundeak	Hazi Fundazioa LGEak Euskadiko Gestio Zentroak				
Betetze-mailaren adierazleak					
Adierazlea				Helburua	
Ekintzailetzako eragileekin egindako koordinazio-bilera teknikoaren kopurua urtearen eta lurralde historikoaren arabera.				2	
Tokiko eta estatuko foro/jardunaldi/ekitaldietan rol aktiboarekin parte hartutako aldiak, urtearen arabera.				6	
Identifikaturako proiektu inspiratzaileen eta errepikatu daitezkeen kopurua, urtearen arabera.				6	

DIN-EA11A4 ekintza		Lurraldearen ekintzailatzaren fokua handitzea hauek babesteko: proiektu berritzaileak, etorkizuneko ikuspegia dutenak, errelebo-aukerak dituztenak, kopia daitezkeen esperientzietan inspiratutakoak eta tokiko garapenarekin lotutakoak.			
Esku-hartze arloa		DINAMIZAZIOA			
Jarduketa-ardatza		EA11: LANDA EREMUETAN EKINTZAILATZA ETA JARDUERA EKONOMIKOAREN DIBERTSIFIKAZIOA SUSTATZEA			
Deskribapena					
Hala, jarduera berriak edo ustiatu gabeko potentziala dutenak hauteman eta sustatuko dira lurraldean, beste lurralde eta/edo erkidego batzuetako teknikariekin egindako foroen bitartez.					
Aldi berean, ekintzaileak inspiratzea eta aktibatzea, kanpoko arrakasta-kasuen bitartez.					
Egutegia					
2025	2026	2027	2028	2029	2030
X	X	X	X	X	X
Erakunde exekutatzailea		Landa Garapenaren eta Europako Politiken zuzendaritza			
Inplikaturako erakundeak		Hazi Fundazioa LGE Euskadiko Gestio Zentroak			
Betetze-mailaren adierazleak					
Adierazlea				Helburua	
Hobi berrietan lagundutako proiektuen kopurua, urtearen arabera				3	
Ekintzaileei jardunaldietan eta argitalpenetan aurkeztutako kanpoko esperientzien kopurua, urtearen arabera				6	

7.3.4. EUSKADIKO LANDA EREMUA SUSTATZEA ETA ZAINZEA (DIN-EA12)

Jarduketa-ardatza DIN-EA12	EUSKADIKO LANDA EREMUA SUSTATZEA ETA ZAINZEA
Helburu Operatiboa	Euskadiko landa-eremuaren idiosinkrasia eta behar espezifikoak lurraldearen antolamendurako tresnetan integratzea.

Esku-hartze arloa	DINAMIZAZIOA				
Deskribapena					
Lurraldearen Antolamendurako Jarraibideak 2019an berrikusi ziren eta landa-ingurunean arreta jartzeak duen garrantzia nabarmentzen dute: <i>“habitat horrek lurraldearen eta ingurumenaren kudeaketan duen funtsezko rolaengatik eta nekazaritza-jarduerak elikagaien tokiko hornitzaile gisa duen rol ekonomikoarengatik”</i>. Hala, nekazaritzako, abeltzaintzako eta basozaintzako sektoreek lurralde-antolamendu erresilientea eta jasangarria lortzeko duten garrantzi handia aitortzen du, eta landa-lurzorua dinamizatzeko eta biziberritzeko, eta nekazaritzako enplegua sustatzeko ekimenak babesteko beharra jasotzen du. Landa-eremuaren azterketa hiriaren ikuspegitik egiten da beti eta ez dira haztatzen edo ez dira kontuan hartzen landa-eremuaren ezaugarriak, idiosinkrasia eta eremu horietako paisaiari eta nortasunari forma eman dioten erabilera tradizionalak (nekazaritza, abeltzaintza eta basozaintza). Erabilera tradizional horietara hurbiltzeko erregulazioa erabiltzen da eta karga burokratikoa areagotzen duten neurri prebentiboek baldintzatzen dute hori. Hala ere, ez dugu ahaztu behar jarduera horiek oinarri ekonomikoa dutela eta horien bideragarritasunaren eta kudeaketaren dinamismoa oso ahula dela. Erabilera horiek alde batera utziz gero, hornikuntza falta izango da lurraldean, baita ingurumenaren ikuspegitik ere, eta suteak izateko arriskua asko handitu eta hiri-inguruneek hainbeste baloratzen duten landa-paisaien faktore kulturala galdu egingo da. Azken batean, landa-eremuaren antolamendua jorratzean, hirikoa ez den lurzorua babesteko eta konektagarritasun ekologikoa bermatzeko mugak ezartzen dira nagusiki, landa eremuko herritarrei eta egun landa-eremuan egiten dituzten jarduerari arreta integratzaileak eskaini gabe eta jarduera horiek arlo funtzional eta autonomikoan duten interes soziala, ingurumenekoa eta ekonomikoa saihestuz. Landa-habitat bizia eduki nahi badugu eta horren idiosinkrasia errespetatu nahi badugu, eta ez badugu nahi hiri-ingurunearen beharren zerbitzura soilik egoterik, plangintza holistikoago bat eta landa-eremuarekiko sentsibiltate handiagoa beharko da, ezaugarriak aintzat hartuko dituen.					
Ekintzak					
DIN-EA12A1:					
Nekazaritzako eta basozaintzako LPS berrikustea, LAGen esparru berrira egokitzeko.					
DIN-EA12A2:					
Euskadiko landa-eremuaren arloan kontutan hartzen diren adierazleak integratzea lurraldearen antolamendurako tresnen jarraipen-sisteman.					
Egutegia					
2025	2026	2027	2028	2029	2030
X	X	X	X	X	X

Erakunde arduraduna	Eusko Jaurlaritzako Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Saila eta Etxebizitza eta Hiri Agenda Saila.
Inplikaturako erakundeak	Nekazaritzako eta basozaintzako arloan eskumenak dituzten Foru Aldundietako Sailak. Hazi Fundazioa

Jarduketa-ardatz honek bi ekintza gauzatzea aurreikusten du

DIN-EA12A1 ekintza	Nekazaritzako eta basozaintzako LPS berrikustea, LAGen esparru berrira egokitzeko.				
Esku-hartze arloa	DINAMIZAZIOA				
Jarduketa-ardatza	DIN-EA12: EUSKADIKO LANDA EREMUA SUSTATZEA ETA ZAINZEA				
Deskribapena					
7/2022 Legeak lurralde-antolamenduaren arloan definitzen duen helburu sektorialetako baten arabera, nekazaritzako eta basozaintzako LPSa da nekazaritzako lurzoruen abandonua ekiditeko eta Euskadiko landa-espazioa zaintzeko tresna garrantzitsuetako bat: “Nekazaritza eta Basozaintzako Lurralde Plan Sektorialean eta Euskadiko Nekazaritza eta Elikagaigintza Politikakoaren abenduaren 23ko 17/2008 Legeko II. titulutik sortutako araudian jasotzen diren tresnak, nekazaritza-lurrak babestekoak, garatzea eta aplikatzea, tresnok funtsezkoak baitira nekazaritza-lurrak bertan behera uztea eragozteko eta haren artifizializazioa saihesteko, elikagaien hornidurarekiko betetzen duten funtzioa babestua”. Ekintza honekin, 2014an onartutako Nekazaritzako eta Basozaintzako LPSa berrikusteko prozedura administratiboa aktibatuko da eta prozesuaren dinamizazioa planifikatu, idazkaritza teknikoaren bitartez. Lehen sektorearekin, ingurumenarekin, lurraldearen antolaketarekin, eta Nekazaritzako eta Basozaintzako LPSren sozializazioarekin lotutako eragileen parte-hartzea izango da kontuan.					
Egutegia					
2025	2026	2027	2028	2029	2030
X	X	X	X	X	X
Erakunde exekutatzailea		Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Saila eta Etxebizitza eta Hiri Agenda Saila			

Inplikaturako erakundeak	Nekazaritzako eta basozaintzako arloan eskumenak dituzten Foru Aldundietako Sailak. Hazi Fundazioa
Betetze-mailaren adierazleak	
Adierazlea	Helburua
Prozedura administratiboa aktibatuta	Bai
Nekazaritzako eta basozaintzako LPSren proposamen teknikoaren definituta	Bai

DIN-EA12A2 ekintza	Euskadiko landa-eremuaren arloan kontutan hartzen diren adierazleak integratzea lurraldearen antolamendurako tresnen jarraipen-sisteman.				
Esku-hartze arloa	DINAMIZAZIOA				
Jarduketa-ardatza	DIN-EA12: EUSKADIKO LANDA EREMUA SUSTATZEA ETA ZAINZEA				
Deskribapena					
Ezinbestekoa da antolamendurako tresnen jarraipen-sisteman adierazle egokiak integratzea, Euskadiko landa-espazioari buruzkoak ere, landa-estrategien eta lurralde-plangintzaren arteko konexioa ahalbidetuz Horri dagokionez, 7/2022 Legearen helburu sektorialetako bat hau da: “Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordearen barruan adieraztea eta adostea landagunea kontserbatzeko dagokionez antolamendurako edozein tresnatan kontuan hartu beharko diren irizpideak”. Horretarako, Eusko Jaurlaritzako Landa Garapenaren eta Europako Politiken zuzendaritzaren eta Lurralde Plangintzaren zuzendaritzaren artean partekatutako prozesua aktibatzea planteatzen da. Ikuspegi zabalagotik, bi zuzendaritzen arteko lankidetzaren xedea da lan-esparru partekatu bat definitzea, landa-eremuen identifikazioarekin lotutako ikuspegiak eta kontzeptuak elkarrengana hurbiltzeko eta konektatzeko, eta administrazioen politika eta plangintzetan integratzeko.					
Egutegia					
2025	2026	2027	2028	2029	2030
	X	X	X	X	X
Erakunde exekutatzailerak		Landa Garapenaren eta Europar Politiken Zuzendaritza			

Inplikaturako erakundeak	Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintzaren Zuzendaritza
	Landa-garapenaren arloan eskumenak dituzten Foru Aldundietako zuzendaritzak.
	Hazi Fundazioa
Betetze-mailaren adierazleak	
Adierazlea	Helburua
Lan-mahai partekatua eratzea	Bai
Adierazle komunaren panel bat baliozkotzea	Bai

III. BLOKEA: ESTRATEGIAREN KUDEAKETA

8. ESTRATEGIA JARRAIPEN ETA EBALUATZEKO SISTEMA

Estrategia denboran zehar egokitzeko eta optimizatzeko, jarraipen eta ebaluazio sistema bat gehituko da, ezarritako ekintzak proposatutako helburuetara iritsi diren ala ez ebaluatzeko. Sistema honen helburua da estrategiaren jarraipen etengabea eta zorrotza egin ahal izateko informazio objektibo eta eguneratua eskaintzea. Sistemaren diseinuak malgutasuna eskaintzen du, jarduketa-ardatzak eta ekintzak lurraldearen beharren eta potentzialtasunen bilakaeraren arabera egokitzeko. Halaber, lortutako aurrerapenen eta emaitzen komunikazio argi eta gardena sustatzen du, eta interesdun guztiengana iristea bermatzen du, administrazio publikoengana, tokiko eragileengana eta herritarrengana barne.

Azken batean, jarraipena eta ebaluazioa egiten duen kontrol-mekanismo bat izateaz gain, **ikasteko, etengabe hobetzeko** eta jorratutako ekimenen arrakastarako tresna estrategiko bat da.

Hori guztia dela eta, bi tresnatan oinarritutako jarraipen eta ebaluazio- sistema bat definitu da: **adierazleen sistema, eta jarraipenerako eta ebaluaziorako memoriak**.

1. Adierazleen sistema

Jarraipena eta ebaluazioa egiteko bi adierazle mota ezartzen dira:

- **Betetze-mailaren adierazleak**, aurreikusitako ekintza bakoitzaren bilakaera eta lorpenak ezagutzeko.
- Ikuspegiarekin eta helburu estrategikoarekin lotutako **inpaktuaren adierazleak, estrategiak ezarritako helburuei dagokienez duen eraginkortasuna ebaluatu ahal izateko**. Hala, adierazle horiek lotuta daude demografiarekin, bizi-kalitatearekin eta ongizatearekin, jarduera ekonomikoaren sustapenarekin eta dibertsifikazioarekin, baita landa-espazioa babestearekin ere. Gainera, aukera ematen dute estrategia aplikatu aurretik eta ondoren egoeraren berri izateko eta egindako ekintzek eragindako aldaketak identifikatzeko.

Estrategia hau Landa-Ingurunearen Garapenari buruzko 7/2022 Legetik eta Lege honek sustatutako tresnetatik eratorritako testuinguru zabalagoaren barruan kokatzen dela kontuan hartuta, inpaktuaren adierazleak identifikatzeko hauek izan dira kontuan: sailak (**Itsaslurra**) ezarritako esparru estrategikoaren jarraipen-adierazleak, LGEPentzat ezarritako inpaktuaren adierazleak eta landa-eremuen **ezaugarriekin** lotutako adierazleak.

Hala, **inpaktu-adierazle** hauek gehituko dira:

- Biztanleria (Kop.)
- Zahartze-indizea (%)
- Maskulinitate-tasa (%)
- Banda zabaleko irisgarritasuna (%)
- Etxebizitza nagusia (%)
- Udal-gastua funtsezko zerbitzuetan pertsonako (€)
- Okupazio-tasa (%)
- Biztanleko BPG (€)
- BEG jarduera-sektoreka (%)
- Establezimenduak sektoreka (kop.)
- Nekazaritzakoak ez diren erabilerak nekazaritza-lurretan (%)
- NAE(Ha)
- Eko-erregimenen azalera (Ha)

Taula honek aipatutako inpaktu-adierazle bakoitzaren egungo balioak jasotzen ditu, udalerriek beren landa-eremuen arabera duten sailkapena kontuan hartuta.

ADIERAZLEA	KATEGORIA	HASIERAKO BALIOA					HASIERAKO BALIOAREN URTEA
		ABE UDALERRIAK	EGL UDALERRIAK	EUSKADIKO LANDA UDALERRIAK GUZTIRA	LHS UDALERRIAK	GUZTIRA EUSKADI	
Biztanleria (Kop.)	Emakumezkoa	14.156	60.917	75.073	1.056.379	1.131.452	2023
	Gizonezkoa	16.087	63.409	79.496	985.792	1.065.288	2023
	Guztira	30.243	124.326	154.569	2.042.171	2.196.740	2023
Zahartze-indizea (%)	Emakumezkoa	26,30%	22,20%	23%	26,50%	26,30%	2023
	Gizonezkoa	24,20%	19,40%	20,40%	21,00%	20,90%	2023
	Guztira	25,2%	20,8%	21,60%	23,8%	23,7%	2023
Maskulinitate-tasa (%)	Guztira	113,6%	104,1%	105,9%	93,3%	94,2%	2023
Banda zabaleko irisgarritasuna (%)	Guztira	90,70%	89,00%	89,60%	94,40%	92,90%	2024
Etxebizitza nagusia (%)	Guztira	56,8%	70,2%	66,90%	87,4%	85,6%	2023
Udal-gastua funtsezko zerbitzuetan pertsonako (€)	Guztira	160,3	188,5	183	262,3	256,7	2022
Okupazio-tasa (%)	Emakumezkoa	48,7%	52,8%	52,0%	48,6%	48,9%	2023

ADIERAZLEA	KATEGORIA	HASIERAKO BALIOA					HASIERAKO BALIOAREN URTEA
		ABE UDALERRIAK	EGL UDALERRIAK	EUSKADIKO LANDA UDALERRIAK GUZTIRA	LHS UDALERRIAK	GUZTIRA EUSKADI	
	Gizonezkoa	54,9%	58,2%	57,5%	55,7%	55,9%	2023
	Guztira	52,0%	55,6%	54,9%	52,0%	52,2%	2023
Biztanleko BPG (€)	Guztira	29.218€	49.056€	45.171€	34.858€	35.582€	2021
BEG jarduera-sektoreka (%)	Lehen sektorea	14,2%	3,1%	4,5%	0,5%	0,8%	2021
	Industria	36,7%	51,2%	49,4%	20,8%	23,3%	2021
	Eraikuntza	5,6%	3,0%	3,4%	5,4%	5,2%	2021
	Zerbitzuak	43,5%	42,6%	42,7%	73,3%	70,6%	2021
Establezimenduak sektoreka (kop.)	Lehen sektorea	1.382	1.436	2.818	2.204	5.022	2023
	Industria	405	1.558	1.963	8.785	10.748	2023
	Eraikuntza	287	1.055	1.342	17.885	19.227	2023
	Zerbitzuak	1.610	7.367	8.977	137.600	146.577	2023
	Guztira	3.684	11.416	15.100	166.474	181.574	2023
Nekazaritzakoak ez diren erabilerak nekazaritza-lurretan (%)	Guztira	3,9%	5,2%	4,6%	7,2%	5,5%	2024
NAE(Ha)	Guztira	70.975	59.474	130.449	55.844	190.029	2022
Eko-erregimenen azalera (Ha)	Guztira	55.541	38.882	94.424	39.694	137.789	2024

Egoera horretatik abiatuta, aurreikusten da estrategia hau hedatzea lagungarria izango dela landa-eremuak garatzeko demografia, bizi-kalitatea eta ongizatea, jardura ekonomikoa sustatzea eta dibertsifikatzea eta landa-eremua zaintzea arloetan.

EUSTATEk biztanleriaren bilakaerari buruz dituen proiektzioak kontuan hartuta, landa-eremuetarako igoera proiektatzen da, Euskadi osorako aurreikusitakoa baino pixka bat handiagoa. Gainera, emakumeen kasuan zertxobait handiagoa izatea aurreikusten da, landa-eremuetan gizonen eta emakumeen arteko oreka eta maskulinitate-tasaren murrizketa bultzatuz.

Landa-eremuetan etxebizitza-parkeak mobilizatzea, bizikidetza-eredu berriak abian jartzea eta araudia egokitzea aukera bat izan daitezke biztanleria atxikitze eta erakartzeko, arreta biztanle

gazteengan jarritz, eta horrek, gainera, hiri- eta landa-arraila murriztea ahalbidetuko du, batez ere arreta bereziko eremuetan (ABE).

Banda zabalaren irisgarritasunari dagokionez, landa-arraila digitala ia itxita geratuko da hemendik 2030era bitartean. Konexio finkorik gabeko enklabe oso isolatueta dauden etxeen ehuneko txiki batek bere horretan jarrai badezake ere, kasu horietan banda zabalerako sarbidea bermatuko duten alternatibak ere izango dira.

Oinarrizko zerbitzuetan, hala nola hezkuntzan, osasunean, gizarte-zerbitzuetan eta gizarte-sustapenean egindako udal-gastuak zuzenean laguntzen du herritarren bizi-kalitatean. 2030erako, landa-udalerrietan per capita gastua handitzea aurreikusi da, transferentzia handiagoei eta udalerri zaurgarrienak laguntzeko programa espezifikoiei esker.

Jarduera ekonomikoaren esparruan, EAEko lan-merkatua oso une onean dago, eta 2030erako Enpleguaren Euskal Estrategiaren bidez, Eusko Jaurlaritzak kalitatezko enplegu osoa lortu nahi du, lan-partaidetza areagotuz, batez ere emakumeen eta kolektibo ahulenen parte-hartzea.

Landa-eremuan okupazio-tasak historikoki hirikoak baino zertxobait txikiagoak izan badira ere, laneratzeko adinean dagoen biztanleriaren bilakaera ona izango dela aurreikusten bada ere, eta landa-udalerrietan industria-ekimen berriak (bioekonomia, energia berriztagarriak, manufaktura arina) eta turismo-zerbitzuak, zainketak, aholkularitza, diseinua eta IKTak bultzatzeak desberdintasun horiek murriztea ahalbidetuko du.

Azkenik, biztanleko BPGari dagokionez, industrialki hobeto konektatutako landa-eremuen eta isolatueta artean dauden aldeak murriztea ere espero da, nahiz eta horietan guztietan aurrerapen orokorra izan den.

Landa-eremua zaintzeari dagokionez, nekazaritzako azalera erabilgarria (NAE) murrizten ari da etengabe, besteak beste, mendiko larre iraunkorrak bertan behera uzteagatik, lur marjinalak kentzeagatik eta azpiegiturei, urbanizazioei eta energia berriztagarrietarako instalazioak ezartzeari lotutako lurraldea gero eta artifizialagoa izateagatik.

Inpaktu-adierazle hauen jarraipena egiteko, adierazleak definitzeko eta antolatze eskuliburu bat egingo da, neurtzeko modua estandarizatzeko, eta aginte-koadro bat ere ezarriko da, estrategiaren jardura ikusarazteko, jarraipena egiteko eta aztertze.

2. Jarraipenerako eta ebaluaziorako memoriak

- **Urteko memoria:**

Memoria bat egingo da urtero eta memoria horretan sustatutako ekintzei buruzko informazioa aurkeztuko da, ekintzen **betetze-mailaren adierazle**en bitartez egindako emaitzen balorazioa barne. Horrez gain, jarduketa-ardatzen **helburu operatibo**en balorazio kualitatiboa egingo da, betetze-mailaren adierazle horien arabera.

- **Tarteko ebaluazioa:**

Urteko memoriez gain, ebaluazio-memoria bat egingo da estrategiaren indarraldiaren erdian, hau da, 2027an.

Tarteko ebaluazio honen barruan esku-hartze arloen **helburu espezifiko**en balorazio kualitatiboa egingo da, helburu operatiboen betetze-mailaren arabera. Helburua da aurreikusitako jarduketa-ardatzak eta ekintzak baliozkotzea edo berrorientatzea eta, hala, ezarritako helburuei ekarpen hobea egitea.

- **Amaierako ebaluazioa:**

Estrategiaren indarraldia amaitzean, **amaierako ebaluazioa** egingo da lortutako lorpenak eta inpaktua identifikatzeko eta aztertzeko.

Ebaluazio hori **helburu estrategiko**aren betetze-mailaren **balorazio kuantitatibo**aren bitartez egingo da, **inpaktu-adierazle**en eboluzioaren eta **helburu espezifiko**en lortze-mailaren balorazio kualitatiboaren arabera (helburu operatiboen betetze-maila aintzat hartuta).

Halaber, Euskadiko landa-eremuen lurralde-garapenarekin lotutako etorkizuneko plangintzetarako eta Nazio Batuen 2030 Agendan ezarritako **Garapen Jasangarrirako Helburuen (GJH)** estrategiaren ekarpenarako kontuan izan beharreko **ikaskuntzak** eta alderdiak gehituko dira.

9. ESTRATEGIAREN GOBERNANTZA ETA KOORDINAZIOA

Eusko Jaurlaritzako Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Sailak sustatuko du landa-garapenerako estrategia hau eta **Landa Garapenaren eta Europako Politiken Zuzendaritzak** kudeatu eta koordinatuko du.

Estrategia honetan jasotako jarduketa-ardatz bakoitzak bere izaera propioa duen arren, garrantzitsua da kontuan izatea elkarren artean lotuta daudela guztiak eta ikuspegi global eta integratua izatea beharrezkoa dela, **Landa-Ingurunearen Garapenari buruzko 7/2022 Legearen** irismenaren arabera. Hortaz, garrantzitsua da ekintza bakoitzak estrategia osoan izango dituen inplikazioak eta/edo baldintzak aztertzea. Ikuspegi sistematikoarekin lan eginez gero, **emaitza hobeak lortuko dira, eta, gainera, argudio sendoagoak eraikiko dira.**

Estrategia honek ez du hasierako esleipen ekonomiko espezifikorik aurreikusten ekintza bakoitzarentzat. Oro har, ekintzak landa-garapenaren arloko administrazio eskudunetako langileek, landa garapen elkarteek eta Hazi Fundazioak gauzatuko dituzte zuzenean, edo,

beharrezkoa izanez gero, kanpora atera ditzakete kontratazio arrunten bidez. Halaber, Europako programekin, mugaz gaindiko lankidetzarekin, eta estatuko edo erkidegoz gaindiko beste iturri batzuekin lotutako finantzaketa-bideak aztertuko dira.

Ekintza bakoitza abian jartzean definituko dira zehatz-mehatz baliabide finantzarioak, eta eskuragarri dauden finantzaketa-aukerak eta inplikaturako eragileen gaitasun operatiboa hartuko da kontuan. Garrantzitsua da gogoraraztea finantzaketa elementu garrantzitsua dela, bai ekintzak aktibatzeko, bai eta ekintza horien bideragarritasuna, proportzionaltasuna eta iraunkortasuna bermatzeko ere.

Horrez gain, eragile instituzionalen zein pribatuen arteko **gobernantza eta koordinazioa** da estrategia zabaltzeko beste elementu garrantzitsuetako bat. Hori hasieratik kontuan izatea eta strategiaren ikuspegi globalean, zein ekintza-mailako lankidetzaz zehatzagoetan **integratzea** ezinbestekoa da **emaitza onak** eta, batez ere, **konpromiso iraunkorrak** lortzeko. Lankidetzazko prozesuen baitan sortzen diren ekimenen kasuan, kofinantzaketarako agertokiak edo erakundeen arteko konpromiso partekatuak aurreikus daitezke.

Horri dagokionez, estrategia hori beste **programa, plan eta ekintza propio batzuekin edo hirugarrenenekin uztartzeko** testuinguru egokia ezartzeak ekarpen positiboa egingo du estrategia honetan definitutako helburuak lortzeko.

Koherentzia komunikatiboa bermatzeko eta plan estrategikoaren ikusgarritasuna eta identitatea indartzeko, **komunikazio-estrategia** bat diseinatu eta ezarriko da, eta strategiaren helburuak eta ekintzak komunikatzeko narrazio komuna izango du.